

Berrigara

Zurrut

Prezioaren igoeraz kezak egon arren, ardoa lehen beste kontsumitzen da

garestia

RENAULT



Renault Scénic berria
Eboluzionatzailea



**MECA
BERGARA**

Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68



SRP 4 AIRBAG

ABS

2 EGUZKITAKO
SAPAI (aukeran)

MODULAGARRITASUNA

LUNETAKO
ALTXAGARRIA




Plastikozko ontziak



Latak



brickak



...zure esku dago

“Buertaka - Buertaka Birziklatuz”

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehenagaita energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zaborteziak ere denbora luzegorako izango ditugu.



Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da

Pinochet ezin gainditu

Iñigo Urrutia / Kazetaria

Pinochet-ek berea lortu du. Lasai asko hilko da ohean, beste hainbat bezalaxe. Azkenean, botereen arteko tirabira ia beti irabazten dutenen alde makurtu da. Kartzelan ikustea edota gutxienez epaileen aurrean bere bizi luzean zehar (luzeegia, joño) egindako astakeriengatik ordaintzea ilusioa, galtzaileen itxaropena, ez dakit zer izan ote den.

Oraindik orain ezinezkoa dirudi zenbait muga gainditzea... Nazioarteko justizia helburu arrisksutsuegia dela pentsatuko zuten Londonen, Madrilan, Washingtonen... Humanitarismoa aipatu dute bihotz gabeko boterearen ordezkariak. Nola espetxeratu, bada, gizarajo nazkagarria! Ia, ia hiltzorian dagoela esan digute. Koittadua! Urteetan zehar hainbeste min eragin duen aitona honek beste tratatu bat merezi du. Utz diezaion bakean hiltzen (ikustekoa izango da Txilen erakutsiko duen itxu-

raldaketa, tronpeta inperialak medio).

Jende asko saiatu da justizia eskatzen, baina botereen interesekin topo egin dute. Eta horma ez dago gainditzetik. Stop, ezin pasa daiteke. Pinochet-en afera aurrekari arrisksutsua zen gainontzeko botere-tsuentzat. Londonen erabakia lasai-garria suertatu da, oraingoz. Bost axola izorratutako milaka hiritarren justizia egarria. Izorratzen jarraitu

"Militarrek babestutako demokrazia hartan, itxaropena berriz galtzeko pisuzko arrazoiak daude. Militarrek eta militarzaleak tartean dabiltzanean, kontuz. Eta ez han bakarrik"

dezatela. Orain esaten diete Txilen epaituko dutela. Hamaika gauza ikusteko jaiotzen! Militarrek babestutako demokrazia hartan, itxaropena berriz galtzeko pisuzko arrazoiak daude. Militarrek eta militarzaleak tartean dabiltzanean, kontuz. Eta ez han bakarrik.

Dena den, poztu gaitezten adierazten digute, Pinochet-ek jaso duen zigor moralarekin. Galtzaileek beti konformatu behar dute irabazi moralarekin. Hau miseria. Aldiz, ikuspuntu historiko batetik abiatuz, egia da Pinochet-en afera borroka luze baten lehen emanaldia besterik ez dela izan.

Diktadoreak uztartzea ez da enpresa erraza. Arnasa hartu eta segi aurrera, nazioarteko justizi penala zeruertzean dago eta. Ezpata zintzilik dago despoten buruen gainetik. Ea ahalik eta lasterren erortzen den (itxaropenak berritu beharrean gauden).<

barruan



Imanol Sorondo

Apaiza

"Euskaldun bezala bizitzeko beharrezkoa da gure historia ezagutzea"

8.



Ion Unamuno

Txirindularia

"Saunier Duval nire talde berrian kirol aukera hobekak izango ditut gora egiteko"

23.



Miren Elorriaga

Itxas Eder arraindegikoa

"Gehixen gustatzen jaten arraina lenguadua da. Angulak urtian behin bakarrik!"

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

Farmaziak

Eguakitza 14:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 15:

CAMACHO. Oxironda 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 16:

CAMACHO. Oxironda 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 17:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 18:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 20:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 16: Konde.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 7

7-24-28-30-36-38 (osag.9/itz.8)

Astelehena 10

25-35-38-43-44-49 (osag.2/itz.2)

Martitzena 11

7-14-27-37-40-44 (osag.24/itz.6)

Eguaztena 12

7-16-22-25-41-44 (osag.46/itz.4)

PRIMITIVA

Zapatua 8

6-10-12-28-32-41 (osag.15/itz.3)

Domeka 9 Saritzarra

17-18-26-27-29-37 (osag.36/itz.4)

ONCE

Eguakitza 7: 10.925 (161 seriea)

Domeka 9: 08.758 (032 seriea)

Astelehena 10: 35.545

Martitzena 11: 32.393

Eguaztena 12: 62.889

BESTE BATZUK

Batzokia: 1: 1.505 / 2: 2.970

Bedelkarren zozketa:

15.251 / 30.007 / 45.262 / 55.579 /

75.325 / 80.580 / 93.215 /

107.302 / 121.220 / 128.740

BKE: Gabonetako saskia: 25.588

Musika ekipoa: 08.625

Etxeberria erlojutegia:

1: 200.000 PTAko bonoa: 4.545

2: 100.000 PTAko bonoa: 2.393

Irudi erlojutegia:

Urrezko erlojua: 0.925

M. Lagundia ikas-bidaia: 0.166


Raul Luqueren aldeko zozketa:

A: 22.159 / B: 19.372 / C: 13.105

Ordezkoak: 08.252 eta 13.216

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Zerua estalita agertuko zaigu eta euria egin dezake han hemenka. Goizaldean izotza ere egin dezake. 600 metrotik gorra, berriz, elurra. Temperatura hotzak, beraz, astebururako. Haizeak ipar mendebaldetik joko du arin.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: abenduak 7



Ilgora: abenduak 16




Ilbete: abenduak 22




Ilbehera: abenduak 29

Eguzkia

Domeka, urtarrilak 16



Sortu: 08:38



Gorde: 18:16

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 6	14	3	-
Eguakitza 7	14	-1	-
Zapatua 8	12	2	5,2
Domeka 9	8	6	35,9
Astelehena 10	8	0	-
Martitzena 11	8	-2	-
Eguaztena 12	9	-2	-

Hurrengo alean, **URTARRILAREN 21a** eta **27a** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

zorion agurrak



Markel Elkororibe
6an 9 urte. Urte askotarako! Aita, ama eta Gorka.



Irati Polanco
Urtarrilaren 5ean urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.



Itziar Zabalo
Abenduaren 26an 15 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Itsaso Zabalo
Urtarrilaren 2an 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Iosu Irizar
Abenduaren 24an 7. Urte askotarako! Etxekoak; batez ere, Unai eta Leire.



Manolo Ena
Urtarrilaren 3an urtebetez. Urte askotarako! Koadrilakoak.



Amaia Otxoa
Urtarrilaren 20an 11 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Deiane Perez
Urtarrilaren 12an 8 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Hodei.



Imanol Retolaza
Urtarrilaren 4an 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Ana Fuentes
Urtarrilaren 14an urtebete. Urte askotarako! Ander anaia eta familia.



Gorka Irizar
Urtarrilaren 8an 9 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



Elisa Sierra
Urtarrilaren 7an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Gemma Iturralde
Urtarrilaren 6an urtebetez. Urte askotarako! Etxekoak.



Aitzol Gutierrez
Urtarrilaren 13an 7 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta anaia Mikel.



Olatz Fernandez
Urtarrilaren 10ean 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Andoni Elortza
Urtarrilaren 15ean urtebete. Urte askotarako! Etxekoak; batez ere, Joseba.



Iker Elizburu
Urtarrilaren 12an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Igor Legazpia
Urtarrilaren 12an 27 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Iosu Pueyo
Urtarrilaren 15ean 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak, Ion eta Borja.



Irati Murgiondo
Urtarrilaren 15ean 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



Iñaki Bazterra
Urtarrilaren 17an 35 urte. Urte askotarako! Emaztea, Olatz eta Maddi.



Olatz Bazterra
Urtarrilaren 20an 3 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Maddi.



Asier Varela
Abenduaren 29an urtebete. Urte askotarako! Aitona-amonak.



Marina Rodriguez
Urtarrilaren 18an urtebetez. Urte askotarako! Etxekoak.

hildakoak



Jose Manuel Serrano
Urtarrilaren 8an
urteak. Urte askotarako!
Etxekoak.



Endika Losada
Abenduaren 31n
urtebetetzea. Urte
askotarako! Etxekoak
eta neskalaguna.



Erik Cuevas
Urtarrilaren 6an
15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Martinez
Urtarrilaren 8an
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta
Marisa.



Marisa Escobar
Abenduaren 31n
39 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Aitor.



Lupe Garcia
Urtarrilaren 3an
urtebetetzea. Urte
askotarako! M. Kar-
men eta Mirian.



Aier Laria
Abenduaren 30ean
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eukene Labaka
Urtarrilaren 8an
5 urte.
Urte askotarako!
Markel.




Amaia Bolinaga
Abenduaren 26an
7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Andoni Dukun
Urtarrilaren 10ean
6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Unai Garmendia
Abenduaren 31n
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jose Luis Garmendia
Abenduaren 31n
urteak. Urte askotarako!
Etxekoak.

BERGARA
Mercedes Zubiaurre Astoreka
Abenduak 15, 80 urte
Margarita Berriozabal Larrañaga
Abenduak 17, 81 urte

Maria Arregi Lamariano
Abenduak 22, 84 urte
Maria Begoña Urbina Aretxaga
Abenduak 22, 63 urte

Jesus Telleria Arrigaeta
Abenduak 24, 74 urte

Zezilia Urkizu Eguren
Abenduak 25, 97 urte

Lorenzo Aranzabal Telleria
Abenduak 26, 78 urte

Rosario Jimenez Muñoz
Abenduak 27, 87 urte

Agapito Larrañaga Laskurain
Abenduak 28, 75 urte

Josefa Altube Lonbide
Abenduak 28, 89 urte

Manolita Saizar Alberdi
Abenduak 28, 83 urte

Jesus Larrañaga Iturrino
Abenduak 29, 78 urte

Ines Agirre Oteiza
Abenduak 31, 75 urte

Francisco Javier Garate Orue
Abenduak 31, 72 urte

Miren Lurdes Osinaga Agirre
Urtarrilak 1, 78 urte

Reyes Korkostegi Villar
Urtarrilak 1, 82 urte

Markos Larrañaga Ormaetxea
Urtarrilak 1, 51 urte

Francisco Javier Ruiz de Eginu Eguren
Urtarrilak 5, 48 urte

Jose Agirregabiria Azkarate
Urtarrilak 8, 88 urte

Maximo Uribe Iturbe
Urtarrilak 9, 75 urte

Casilda Moreno Gonzalez
Urtarrilak 11, 82 urte

ANTZUOLA
Xabier Barkero Manzidor
Abenduak 17, 23 urte
Mari Karmen Balseira Rodriguez
Abenduak 25, 63 urte
Benita Alberdi Mazmela
Abenduak 28, 78 urte
Jose Agirre Azkarate
Urtarrilak 9, 91 urte

jaiotakoak

BERGARA
Nerea Fernandez Castillejo
Abenduak 12

Xabier Aldai Trujillo
Abenduak 17

Iker Aldai Trujillo
Abenduak 17

Gorane Polanco Garcia
Abenduak 18

Andrea Martinez Gomez
Abenduak 20

Garazi Plazaola Madinabeitia
Abenduak 23

Oier Barragan Leniz
Abenduak 26

Leire Rajado Conde
Abenduak 31

Iñaki Gonzalez Urbieta
Abenduak 31

Danel Diaz de Gereñu Serrano
Urtarrilak 1

Maidar Amutxastegi Alberdi
Urtarrilak 4

Iker Egaña Oianguren
Urtarrilak 7

ESKER ONA

**Josefa
Altube Lonbide**

Bergaran hil zen
1999ko abenduaren 28an,
89 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Alejandro
Marco Pellejero**

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretanoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Migel
Epelde Arano**

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretanoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Nikolas
Agirrezabal Gaztelu**

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilak 16,
goizeko 11:00etan, Angiozarko
San Migel Goiangeruaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretanoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► **Eloy Arenas eta Jorge Roelase**n "Entiendeme tu a mi" antzezlan gaur, eguakitzan, 22:30etan Elorrion.

► **Legaleon** taldearen "Comeme el punto" datorren eguakitzean, hilak 21, 22:30etan Novedadesen.

MUSIKA

► **Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, 12:30etan, Udal Pilotalekuan.

► **Joku itzela eta Aitzakirik** taldeak gaur, eguakitzan, 22:30etan Elgetako Gaztetxean. Bihar, ordu eta toki berean, **Mikel Urdangarin**.

► **Petti kantaria** datorren eguenean, hilak 20, 21:00etan Go-Jam-en.

ERAKUSKETAK

► **Pello Alberdiren margoak** Nahikari tabernan.

LEHIAKETAK

► **Justo Garate Arriola beka**. 1999ko deialdia historiari gaiei zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz burutu da eta bekaren diru-zenbatekoa 1.000.000 pezetakoa izango da. Bekaren iraupena

11 hilabetekoa izango da. Beka jaso ahal izateko 35 urte bitarteko diplomatua edo maila bereko tituloduna izan beharra dago. Eske idazkiak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea otsailaren 15era arte zabalik izango da. Argibideak 943 77 91 58 telefono zenbakian.

ERAKUSKETA

Antton Arrillagaren margoak


Non: Kultur Etxean

Noiz: urtarrilaren 14tik 23ra

Ordutegia: astebarruan, 18:00-21:00. Zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

"Antxintxikalariak, zezenak eta toreadoriak" titulupean, Antton Arrillagak 32 lan ditu erakusgai gaur hasi eta hilaren 23ra arte Kultur Etxean izango den erakusketan. Elgoibartarra jaiotzez, Arrillaga (53 urte) duela 27 bat urte etorri zen Bergara bizi izatera eta bertan ekin zion margotzeari. Bere hitzetan, "Kultur Ekin-tzak antolatzen zituen ikastaroetan hasi nintzen, orain dela 15 bat urte-edo. Ordutik hainbat irakasle izan ditut: Luis Laskurain, Mari Paz Alustiza, Jon Balentziaga, Juanjo Altuna... Bergaran egin naiz pintore. Gasteizen eta Bilbon ere ibilia naiz eta Rafael Lafuente eta Manuel Balzarekin ere asko ikasi dut".

Kultur Etxean erakutsiko dituen lanak zezenen ingurukoak dira denak; "orain dela sei bat urte hasi nintzen gai hori lantzen eta urtero Pazkuetarako antolatzen den Abdon Juaristi lehiaketara aurkeztu izan naiz. Konturatu nintzenerako lan dezente eginak nituen gai horren inguruan eta kapritxoa neukan guztiak zintzilikatuta ikusteko. Hortik sortu zen erakusketaren ideia. Koadro figuratiboak dira, oleoak, akuarelak eta marrazkiak. Dozena bat kenduta, formato txikikoak dira". Lanen oinarria argazkiak izan dira gehienetan; "margotzeko oso erakargarria da zezenen gaia, kolore eta plastika aldetik aukera asko ematen dituelako. Hori bai, nahiago dut zezenak barrera atzetik ikustea" esaten digu umorez.



Antton Arrillaga, bere estudioan ateratako argazkian.

IKASTAROAK

► **Augustin Zubikarai literatura lehiaketa**. Batueraz zein bizkaieraz idatzitako narrazioak onartuko dira eta lanak entregatzeko epea otsailaren 11n bukatuko da. Argibideak Ondarroako Udaleko Euskara Zerbitzuan, 94 683 36 68 zenbakian.

► **Moises Aspiazu** dantza taldearen eskutik, helduei zuzendutako arin-arin eta fandangoko ikastaroak zapatu goizetan. Argibideak 943 76 15 40 zenbakian.

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

GOXO-TOKI

IRALA 3. Tf. 943 76 12 35
MATXIATEGI 34. Tf. 943 76 23 31
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

► **Ingurugiro-kudaketa** jasangarrirako informazio eta partaidetza publikoari buruzko ikastaroa, Donostian urtarrilaren 31tik martxoaren 1era bitartean eta Bilbon otsailaren 1etik martxoaren 2ra arte. Argibideak: 943 39 22 29.

DEIAK

► **EHk** bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu du. Autobusa 16:00etan aterako da Frontotik. Izen-ematea Arranon.

► **EAJk eta IUk** bihar, zapatua, Bilbon izango den manifestaziorako autobusa antolatu dute. Autobusa 15:30etan aterako da autobus geltokitik.

► **Hitzaldia:** "Gurasoen zeregina seme-alaben afektibitate eta sexu-hezkuntza" datorren egunean, hilak 20, 18:30etan Kultur Etxean, Amaia Vazquez psikologoaren eskutik.

► **Euskal presoak Euskal Herrira/kalera** lemapean, urtarrilaren 22an Iruñean izango den manifestaziora joateko autobusa izango da. Izen-ematea Arrano tabernan.

OHARRAK

► **Debaguneko egutegiak** salgai Jardun elkartearen.

► **Orfeoia**ren Gabonetako loteria Plazako Kutxako bulegoan kobratu daiteke.

JAIK

► **San Anton jaiak** asteburua, bihar, **zapatua**, auzoko anaidiaren bilera 9:30etan, mus txapelketa 16:00etan Zubiberri sagardotegian (1.500 pezeta izen-ematea), 18:00etan txapligu eta zuskarraberak eta 21:00etan afari herrikoia.

Domekan, goizeko 11etan Meza Nagusia, 12etan krosa, jarraian salda banaketa eta erromeria eta 12:30etan herri kirolak eta dantza saioa eta 13:00ean haurrentzako jolasak. Azkenik, **astelehenean**, San Anton egunean, goizeko 10etan ermitara igoera eta 11etan Meza Nagusia. Ondoren salda eta txorizoa banatuko dira.

KINTADAK

► **1926an jaiotako**en eguna bihar, zapatua, hilak 15. Monjazaharretan meza 12:30etan eta, Antxonin bazkaldu aurretik, taldeko argazkia aterako da Frontoian. 943 76 46 65 (Floren Yarza) eta 943 76 38 91 (Juan Mari Errasti).

► **1956an jaiotako**en afaria urtarrilaren 29an Osintxuko Txuringo jatetxean. Izen-ematea berta (943 76 48 63).

► **1941n jaiotako**en afaria urtarrilaren 29an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Lazkano oinetako dendan edo jatetxean bertan hilaren 26ra arte zabalik.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Ana y el rey

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Mystery men

Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Smoke signals (J.B.)

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Mickey ojos azules

Eguakitza: 22:00.

El gigante de hierro

Zapatua eta domeka: 17:00.

Nadie conoce a nadie

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Tarzan

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.

Astelehena: 19:30.

Martitzena: 19:30.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30.

Jugando con el corazon

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehenetik eguaztena: 22:15.

EIBAR. Rialto

El fin de los dias

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Caprichos del destino

Zapatua: 20:00.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Unos peques geniales

Domeka: 17:00.

Said

Eguena, zine-kluba: 20:15.

ANA Y EL REY

Zuzendaria: Andy Tennant.

Aktoreak: Jodie Foster, Chow Yun-Fat, Bai Ling. ADIN GUZTIK

XIX. mendearen bukaeran *Ana Leonouens* (Jodie Foster) etxe-irakasle britaniarra Siamgo erreinura abiatu zen, *Mongkut* erregearen (Chow Yun-Fat) 58 seme-alabak hezitzeke asmoz. Anaren izaerak eta erregearen ohiturek elkarren aurka egingo dute hasieran...

MISTERY MEN

Zuzendaria: Kinka Usher.

Aktoreak: Hank Azaria, Janeane Garofalo, Ben Stiller.

ADIN GUZTIK

Champion Cityko hirian *Roy*, *Jeffrey* eta *Eddie* supereroiak izateko borrokan dihardute; hirurek botere bereziak dituztela uste dute. Ahalegin horretan biztanleen idoloa bihurtu den Kapitanaren konpetentzia izango dute... Efektu bereziak dira komedia honen oinarri nagusienetako bat.

SMOKE SIGNALS

Zuzendaria: Chris Eyre.

Aktoreak: Adam Beach, Evan Adams, Irene Bedard. ≥ 18 URTE
Sundanceko Zine Jaialdian publikoaren saria jaso zuen filme honek. Hamar urtez bere aitaren nondik norakoak jakin ez dituen *Victor Joseph* gazteak bere heriotzaren berri jasoko du eta lagun baten laguntzaz Phoenix hirira joango da, gorpuaz arduratzeko. Jatorrizko bertsioan gaztelarazko azpitituluekin.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!
Zatoz eta informa zaitetz!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Imanol Sorondo, oiar-tzuarra den arren, 25 urtean egon zen apaiz Santa Marinako parrokiari. Orain dela bi urte-tik izan dugu gure artean "Bergarako gordailutik", herritarrei Bergarako historia ezagutaraziz. Baina iritsi zaio agur esateko ordua; hori dela eta, berarekin hitzegi nahi izan dugu.

G. Noiz hasi zinen Bergarako historia aztertzen?

E. Niri gaztetatik interesatu izan zait euskal kultura eta historia. Bergaran apaiz nintzela, ermita batera joan nintzen behin, eta han ikusi nuen irudi batek asko inpresionatu ninduen; horrela, Bergarako ermita guztiak ezagutzeko gogoia piztu zitzaidan. Orduan hasi nintzen parrokiako artxibategiak eta liburuak begiratzeko.

G. Lan hau eginda zenuen ala bi urte hauetan joan zara burutzen?

E. Artxiboak eta begiratzeko hasi nintzenez, apunteak hartzen nituen, baina ez nien artikulu formarik ematen, apunte soilak ziren. Eta BERRIGARAKO "Bergarako gordailutik" sailerako apunte horiek hartu eta forma eman behar izan nien.

G. Non aurkitzen duzu informazioa? Zein da zure informazio-iturri nagusia?

E. Liburuak eta artxibategietako dokumentuak dira nire informazio-iturri nagusiak. Euskal kultura eta historiari buruzko liburu mordoak irakurri dut. Eta gero, irakurritakoa artxibategietan aurkitzen dudarekin lotzen saiatzen naiz.

G. Bergararrek ezagutzen al dute beraien herriko historia? Jendeak ba al du interesik?

E. Nik uste dut gaur egun interes gehiago dau-

IMANOL SORONDO

Apaiza

"Euskaldun bezala bizitzeko gure historia ezagutzea beharrezkoa da"



Imanol Sorondo 25 urtean izan zen Santa Marinan apaiz.

kala gazte jendeak. Gainera, iruditzen zait beharrezkoa dela historia ezagutzea euskaldun izateko eta euskaldun bezala bizitzeko, sentimenduak ez direla nahikoa; beharrezkoa da beste herriengandik zertan bereizten garen ezagutzea gure historian oinarrituz. Gure nortasunaren nondik norakoaren ideia pixka bat ez baldin ba-

"Zure herria maite baldin baduzu, ezagutu egin nahi duzu, eta ezagutzen baduzu, berriz, maite egingo duzu"

dugu, nekez iraungo dugu kultura eta herrialde indartsuagoen aurrean. Gainera, zure herria maite baldin baduzu, herri hori ezagutzea nahi duzu, eta era berean, ezagutzen duzuna maite egiten duzu.

G. Ondare historiko oparoa al dugu Bergaran?

E. Niri baietz iruditzen zait. Alde batetik, informazio-iturri garrantzitsuak ditugu: parrokiako artxibategiak, udaletxeak... Eta ondare artistikoari dagokionez ere oso herri aberatsa dugu, Oñati eta Hondarribiarekin batera.

G. Zein izan da aurkitu duzun gertaera edo informaziorik bitxiena?

E. Bitxikeria asko aurkitu izan dut. Behin BERRIGARAN idatzi nuen bi apaiz alkateari harrika aritu zirela Arruriaga eta Masterreka kaleetan. Herritarrek alkateari laguntzera eta apaizak baretzera atera ziren kalera, eta baretzen ez zirela ikusita, espetxera sartu zituzten. Pena daukat ezin izan baitut jakin apaizen haserrearen zergatia. Besté gertakizun bitxi bat ere gogoratzen dut, apaiz "espadatxin" baten historia. Bestalde, lehenengo aldiz Bergarako eskulabu kontua aurkitu nuen oso harrিতa gelditu nintzen, nahiko bitxia iruditu zitzaidan.

G. Badaukazu proiekturik eskuartean? Libururen bat, beste aldizkariren batean argitalpenak...

E. Bergarako historiari buruzko liburu bat idazteko asmoarekin ibili nintzen, baina osasunez ez nabil oso ondo eta alde batera laga nuen. Ideia eta proiektu asko izan dut buruan, baina azkenean ez dut aurrera egin. Eta gainera kontuan hartu apaiza ere banaizela eta horrek ere denbora kentzen didala.<


Goiena kooperatiba sortzeko lanean ari dira bailarako euskara elkarteak

Hurbileko komunikazio zerbitzuak bultzatu nahi dituzte Debagoiengan

Euskararen aldeko Debagoiengo zazpi talde "Goiena komunikazio zerbitzuak" kooperatiba elkarteak sortzeko lanean ari dira.

Azken hamarkadan egindako bideari jarraipena eman eta urrats berri bat emateko asmoz sortu da Goiena egitasmoa. Debagoiengo herriak eta hedabideak bildu nahi ditu, egoera berrian banaka baino elkartuta indartsuagoa izango direlakoan. Bitariko kooperatiba izango litzateke Goiena eta Antzuola, Elgeta, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Aramaio eta Bergarako euskara elkarteak izango litzateke nazionalak. Lan bazkideak eta laguntzaileak izatea ere aurreikusten da.

Goiena egitasmoaren oinarritzko txostenaren sinatze ekitaldia abenduaren 21ean egin zen Arrasateko AED elkartearekin eta Jose Angel Mikelio izan genuen Jarduneko ordezkaria bertan. AED eta Jardunekin batera, Idolaz (Antzuola), Laixan (Oñati), Loramendi (Aretxabaleta), Axtroki (Eskoriatza) eta Pagedar (Leintz-Gatzaga) ere



Abenduaren 21ean Arrasaten egindako sinatze ekitaldian bailarako euskara elkarte guztietako ordezkariak bildu ziren.

izan ziren sinatzaileak. Guztira, 3.000 bazkide inguru dituzte elkarteak.

Epe motzean, eskualde mailan, telebista jarri nahi da martxan, satelitez, kablez eta sare informatikoz betarik datorkigun gizartean komunikazioaren esparrua zabaldu nahirik. Bergarako izango du lekua aipatutako telebistan. Horretarako, datozen asteotan BERRIGARA astelehen bulegoa Irizar jauregian kokatuko da, bitarteko onenekin erroka berriei

aurre egiteko asmoz. Gaur egun herri mailako hiru telebista ari dira lanean Debagoiengan: Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan.

"DEBAGOIENA" IZENA

Euskaltzaindiak azaroan erabaki zuenez, gure bailarako Debagoiena izena izango du aurrerantzean, orain arteko Deba Garaia ordeza, hortik beraz Goiena izena. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak lau izen erabili zituen: orain ar-

teko Deba Garaia, Debagoiena, Debagoena eta Debagoia. Mikel Gorrotxategi Onomastiko batzordeko kidearen arabera, "Goiena forma aukeratu genuen, hori delako inguru horretan gehien erabiltzen dena. Bertakoa, gainera, hori da. Ibai arroen kasuan, dena batera idazteko irizpidea du Euskaltzaindiak". Honen arabera, bailara osoari Debarroa deituko zaio eta Deba Behea izan dena Debabarrena izenez ezagutuko da.

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



Argazkian, Alvaro Esparza zinegotziaren etxe atarian agertutako pintadak.

DV

Zubimendi eta Esparzaren aldeko testuak onartu ziren

Etkez etxeko zerbitzuko langileek protesta egin zuten

EAJ-EA, EH eta PSE-EE-ren aldeko botoekin, Mikel Zubimendiren aldeko mozioa onartu zen joan zen abenduaren 20ko ohiko Plenoan. PPko ordezkaria ez zen udal batzarrean izan.

Testuan jasotzen denez, Udalbatzak honako akordioak hartu zituen: Mikel Zubimendi eta bere senideei elkartasuna adieraztea, La Santé espetxeko zuzendariari Zubimendi preso le-

henbailehen ospitalera eramateko eskatzea, behar duen moduko tratamendu medikoa izan dezan, Udaleko ordezkari bat espetxera bertaratzea jarraipen zuzena egin ahal izateko eta, azkenik, hartutako akordioen berri La Santéko zuzendariari, Frantziako barne ministroari eta komunikabideei ematea.

Bestalde, presoek protestaldiekin jarraituz, Iñaki Arietaleanizbeasko "Bixkai" k 44 egun gose greban

egingo ditu gaur. Azken informazioen arabera, "Bixkai" k 21 kilo galdu ditu eta tentsioa baxu dauka baina ondo aurkitzen da.

ESPARZAREN KONTRAKO PINTADAK

Kontu hauekin jarraituz, esan dezagun udal taldeetako bozeramaleek adierazpen instituzionala onartu zutela joan zen abenduaren 24an Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotziaren aurka azaldutako pintadak zirela

eta. Lehenbiziko puntuari, ekinntza horrekiko arbuioirik gogorrena adieraztea onartu zuten, "pertsonek oinarrizko eskubideen aurkakoa delako eta horrelako ekinntzak bakerantzko bidean aurrera egiteko oztopoak berririk ez direlako". Era berean, "Euskal Herriak bizi duen gatazka egoera gainditzeko elkarrizketa bidea garatzea eta Alvaro Esparza jaunari eta bere sendiari elkartasuna adieraztea" jasotzen zen testuaren azken bi puntuetan. Gabonen atarian Esparzaren aurkako pintadak azaldu ziren zinegotzi sozialistaren etxebizitzaren sarreran. Besteak beste, "PSOE asesino", "ETA máta-lo" edo "Esparza cabrón" irakur zitezkeen aipatutako pintadetan. Era berean, Esparzaren autoaren ondoan zilueta bat margotu zuten.

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Bestalde, etkez etxeko zerbitzuko langileak abenduaren 20ko Plenoan izan ziren, beraien lan baldintzen kontra protesta egiteko. Udalak zerbitzu hori kontratatzeke baldintza plegua mahai gainean uztea lortu zuten, EH eta PSE-EEko zinegotzien botoei esker. EAJ-EAko bi zinegotzi Plenoan ez izatean, euren zazpi botoak ez ziren nahikoa izan baldintzak onartzeko. Ehun bat etxetan lanean ari diren emakumeek, baldintzetan ordu bakoitzeko kobratu beharreko kantitatea zehaztea eskatzen dute.

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

Maxim's

☎ 943 76 20 61

Presoen aldeko ekimenak Gabonetan

Manifestazioak eta itxialdiak azken egunotan Bergaran eta gure bailaran



Abenduaren 24an, iluntzean, euskal presoen aldeko manifestaldia egin zen herriko kaleetan. Aurretik, goizean, Amnistiaren aldeko Olentzeroan parte hartu zuten herriko hainbat

lagunek. Pankartan "Gose greban Amnistia!" irakur zitekeen eta presoen irudiekin kartelak ere bazeramatzaten manifestariek. Amaieran, Gabon kantak eskaini ziren plazan.



Euskal presoek dar-maten protestaldiekin bat eginez, presoen eskubideen aldeko gose greba egin zen Arrasateko Uarkape pilotalekuan abenduaren 27tik urtarrilaren 2ra arte, Gesto-

rek deituta. Bertan 400 lagun inguruk hartu zuen parte, tartean Bergarako hamahiru lagun ere. Era berean, presoen aldeko mobilizazioak izan ziren Deba-goieneko herrietan.



Bostehun lagunetik gora bildu ziren, "Euskal presoen eskubideen alde" lemapean, Batera plataformak abenduaren 31n deitutako manifestazio ixilean. EAJ, EA, EH eta IU alderdi

politikoak, ELA, LAB eta EHNE sindikatuak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Senideak eta Bergarara plataformak egindako deiari herritarrek primerako erantzuna eman zioten.



LABeko 60 ordezkariak hartu dute parte urtarrilaren 10etik 14ra Udaletxean egindako baraualdi-itxialdian. Jose Luis Loidi "Rossli"ren hitzetan, "presoen auzian Madril eta Pariseko go-

bernuek euskal gizartearen borondateari muzin egin diotenez, urrats eraginkor hau egitea erabaki dugu". LABek hilaren 27rako deitutako greba orokorrean parte hartzeko deia luzatu du.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Berrigara

393 zenbakia.
2000ko urtarrilaren 14a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Tere Madinabeitia, Aintzane Irizar.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzea: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Estepan Plazaola, Alex Labaien, Maripí Laskurain.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkoroerezibara, Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldé, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Aguiré, Antxon Agirre Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Juçara Xavier de Souza.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lage gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

PRESOAK BIZIRIK ETA ASKE BEHAR DITUGU

Euskal preso politikoen borrokaldiak, orain arte garaturikoek izan ez duten dimentsio politikoa eta soziala du bere baitan. Presoen borrokaldi hau ez dator beraien eskubideak defendatzera soilik. Euskal Herriak indarrean jarri duen Prozesu Politiko Demokratiko eta Nazionalari bultzada emate-ra dator bereziki.

Zentzu honetan eta erratzeko arriskurik gabe ozen esan dezakegu, Euskal Presoen eskubideak defenditzea Euskal Herria defenditzea dela.

Euskal Herriak ireki duen prozesu politikoak preso eta iheslari politikoak etxean behar ditu prozesu politikoak garatu ahal izateko. Amnistiaren premian daudenak ez dira soilik preso eta iheslariak, Euskal Herri osoa baizik.

Horregatik, abenduaren 27tik urtarrilaren 2ra arte, 800 lagun baino gehiagok gose greba nazional bat

egin dugu eta greba honekin batera, hainbat mobilizazio han eta hemen. Izan ere, gutxi batzuk dena eman ez dezaten, denok zerbait eman behar dugu.

Eta zu, zer zaude emateko prest?

Kontuan eduki behar dugu presoen aldarrikapenak behin eta berriz onartu direla, bai sozial mailan eta baita instituzio mailan ere. Aldarrikapenok ez dira oraindik bete, baina zalan-tzarik gabe zure ahalegin-txoa guztionari erantsiz, Euskal Herriaren nahia errespetatua izatea lortuko dugu.

*Arrasaten egon diren
Begarako
13 gose grebalari*



BERRIGARA GIDA 2000 KALEAN

Aste honetan banatuko da Berrigararekin batera Berrigara Gida 2000, Bergara eta Antzuolako telefonoak biltzen dituen liburuxkoa. Profesional, lantegi, denda eta abarren telefonoak aurkituko dituzue bertan, partikularrenekin batera. Gida etxean jasotzen ez baduzue eta eskuratzeko interesa izanez gero, deitu Berrigarara, 943 76 03 97 telefonora edo pasa zaitzete erredakziotik bertatik. Bertan eskuratu ahal izango duzue.

tira biraka bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Gripe kasu asko egon die azken astiotan. Zuri tokatu jatzu gripea jasan behar izatia?



Leire Ambroy

Entzun dot jende askok pasatu dabela gripea baina niri eta nire familiakoei ere ez jaku tokatu. Gabonetan ondo ibili naiz.



Jose Mari Igartua

Bai, Gabonzaharretan, aste guztian ohean egon naiz. Ez dut txertorik hartu baina, medikuak esanda, datorren urtetik aurrera hartuko dot.



Maria Luisa Orueta

Ez. Duela 15 urtetik-edo ohitura daukat gripearen kontrako txertoa hartzeko, urri aldera beti, eta ez dot griperik jasan.

Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

SAN PEDRO PARROKIAKO KANPAIKADAK

Edurne Egañak deitu zigun Gabon aurretik BERRIGARAKO erredakziora, San Pedro parrokiako kanpaikaden gainean abisua emateko. Edurne aspaldi konturatuta dago laurdenetan ordu osoetako kanpaiak jotzen dituela erlojuak; esate baterako, hamarrak eta laurdenak direnean hamar kanpaikada jotzen ditu.

Edurnek bere etxetik entzuten ditu kanpaiak eta lehen askotan nahastu egiten zen; orain ohitu da, baina San Pedroko parrokoari edo dagokionari eskatu nahi lioke konpon dezala behingoz kanpaikaden kontu hau edo kanpai-hotsa ixil arazi dezala bestela. Badira hileak erlojua horrela dabilela eta konponketa hain zaila edo garestia ote den galdera egiten du Edurnek.




Alberto Salas

Gripe fuertea pasatu dut bai, Gabonzaharretatik astebate eta piku egon naiz gaisorik eta oraindik ez naiz osorik erreuperatu.



Teresa Solar

Arraroa da nik gripea hartzea. Alde horretatik behintzat zorte handia daukat oraingoz, txertoa ere ez dotelako hartzen.



Igor Landa


Hor nabil be bai, piskatxo bat, baina ohean ez naiz egon, ezin naiz etxean egon eta. Eztula fuertea izan dot egun hauetan.



Olentzero arrakastatsua Aranzadi ikastolan

Ohi dugun bezala, joan zen abenduaren 24an **Olentzero eguna** ospatu genuen. Bai plazan eta bai Poligonoan benetan **pozteko partehartzea** izan zen guraso, ikasle eta irakasleen aldetik eta kaleak alaitu genituen musikaz erta kantuz. Bukaeran ere giro ederra izan genuen salda beroa eta txorizoa dastatzen genuen bitartean. Denak zoriontzeko moduko egun arrakastatsua.

Zorionak eta urte beri on denoi aranzadi ikastolaren partez.



ARANZADI IKASTOLA

adituen esanetan

Bideo kontsolak

Telebistaren eraginez, bideo-jokuak, kontsolak eta horrelakoak modan dira gaur egun. Alde batek, gauza onak badituzte, bisualak izatean, atentzioa eta esku-motritzitatea (manduen bitartez) lantzeko balio-garriak izan daitezkeelako. Hala ere, gazetxoak buru-belarri aritzen dira jokoan eta horrek bere arriskuak ere baditu. Harremana bultzatzen duten jolasen aldean (partxisa, kartak, galdera-erantzunak...), askoz ere indibidualagoak dira.

Eduki aldetik, biolentzian eta konpetibitatean (irabaztea da helburu nagusia) oinarritzen dira eta konfliktuak konpontzeko modurik errazena biolentzia dela ikasten dute. Kolore, soinu eta mugimenduari esker errealitatearen kopia sinesgarria lortzen dute. Efektu horiekin liluraturik, gazetxoak jokuetak pertsonaiekin identifikatzen dira. Ondorioz, beraien harremanetan kondukta hauek errepikatzen




PAKITA URKAREGI

Psikologoa

"Joku hauek konpetibitatean oinarritzen dira eta gatazkak konpontzeko modurik errazena biolentzia dela erakusten dute"

Helduen papera oso garrantzitsua da haurrei errealitatearen eta fikzioaren arteko bereizketa egiten erakusteko. Helduek horretan parte hartzen ez badute, haurrek jokuarenganako dependentzia azaldu dezakete. Komenigarriagoa da kreatibitatea bultzatzen duten jokuetak aritzea, bideo-jokuak eta horrelakoak pasiboagoak direlako, ia dena emanda datorkigulako.<

dituzte, nolabaiteko "heroi" horiekin identifikatuz. Pantailako irudiek eta akzioak betetzen dute umearen barkadatea eta hutsunak. Umeak pentsatzeari lagatzen dio eta jokua pertsonaia bihurtzen da bere impultsoak martxan jarritz. Horregatik, joku hauek adikzioa sortzeko arriskua dute eta hori ez gertatzeko komenigarria da umeekin denbora bat "galtzea" (jolasen, irakurtzen, kirolean...), harreman afektiboak bultzatzeko eta bideo-jokuen denborak mugatzeko.



Gero eta haur eta gaztetxo gehiago dira bideo-jokuak erabiltzen dituztenak.

bergarako errotrak

Errotei buruzko sail berria Antxon Agirre Sorondoren eskutik

Gure arbasoek bizi eta gordetako hainbat konturen berri eman digu Imanol Sorondok bi urtetan zehar "Bergarako gordailutik" izeneko txoko honetan. Aste-oro-astero, han eta hemengo artxi-boetan arakatu eta jasotako Bergararekin lotutako istorioak izan dira. Aurreko mendeetakoak gehienbat.

Lerro hauen bitartez, BERRIGARAKO sail honetarako egindako lana eskertu nahi diogu Imanol Sorondori eta, horretaz gain, aurrerantzean toki honetan argitaratuko ditugun artikuluen berri eman nahi dizuegu. Izan ere, Antxon Agirre Sorondo (argazkian) ikerlari eta idazlea k 1983ko Jose Migel Barandiaran bekarako egindako lana, "Tratado de moliología" izenburukoa, oinarritzat hartuz, Bergarako erroten berri izango duzue astero.

Garai batean Bergaran ziren erroten inguruan jardungo digu Antxon Agirre Sorondo etnografo ospetsuak. Kontuan izan behar da orain dela urte batzuk 661 errota zirela Gipuzkoa osoan zehar eta Bergara zela errotarik gehien zituen herria. Adibide bat jartzearen, garai batean 41 errota ziren Bergaran eta Donostian, Gipuzkorian gehien zituen bigarren herrian, 28 ziren.

Antxon Agirre Sorondo Aranzadi Zientzia Elkarteko, Eusko Ikaskuntzako eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kidea da besteak beste. Hainbat artikulua idatzi izan ditu egunkarietan eta telebistarako ere gidoilari lanak egin izan ditu behin baino gehiagotan. Aurrerantzean, BERRIGARAKO ohiko kolaboratzaile izango dugu.<





AEKren mariskadaren zozketa

Bergarako Akulu-AEK euskaltegiak, urtero-urtero Gabonak iristen direnean zozketatu ohi duen **mariskadaren zenbaki saritua 353** izan da oraingoan, eta **Itziar Igarzari** egokitu zaio saria. Gabon gauerako afari ederra egiteko aukera izango zuten, bada, Itziarren etxean!



Gabonak, haurren jolas egunak

Gabonetan, **ekitaldi ugari** antolatu dira aurtengoan ere gaztetxoentzat; ez dute ez aspertzeko betarik izan. Abenduaren 27tik 30era bitartean, bai **Kartzela Zaharrean Jardunek** antolatuta, eta bai **Kiroldegian zein igerilekuetan**, jolas, lehiaketa eta denborapasa ugariz gozatzeko aukera izan zuten.



Osintxuarra aurten Gipuzkoan jaiotako lehen haurra

Urte berriarekin beti izan ohi da albiste jaiotzen den **lehen haurra**, eta are gehiago aurten, 2000. urtea dela eta. **Danel Díaz de Gereñu Serrano** osintxuarra izan da aurten Gipuzkoan jaio den lehen haurra. Zorionak Daneli, eta baita **Irune eta Anjel** bere gurasoei ere! **1990. urteko lehena** ere bergararra izan zen eta, hara nondik, **Danel** du izena mutil koskor honek ere: Danel Miner Irizar.



Bi bergarar New Yorkera

Mariaren Lagundia ikastolako bi ikaslek, **Maialen Legorburu eta Mireia Ortigosak**, **New Yorkerako astebeteko bidaia** irabazi zuten **Eusko Jaurlaritzak** Giza Eskubideen inguruan antolaturiko **kartel lehiaketa** batean garaile atera ondoren. Bidaia honetan **Nazio Batuen egoitza** ikusteko aukera izango dute, baina bidaia pertsona bakarrarentzat denez, oraindik ez dakite bietako nor joango den. Dena dela, zorionak eta ondo pasa dezazuela!

B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARTAZ KLINIKA (LAZPIUR Roman)**. Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)**. 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala)**. 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak)**. Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika)**. Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel**. Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor**. Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLOZABAL**. Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto**. Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta** 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia**. Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **TRIPALDI Enrike**. Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria**. Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA**. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier**. Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune**. Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier**. Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana**. Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel**. Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA**. Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Eburne**. Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu**. Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo**. San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kазetaria: Marijo Deogracias Maketazioa: Iñaki Iturbe Publizitatea: Uxue Zabaleta Erredakzio kontseilua: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga Testuen zuzenketak: Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu Telefonoa eta faxa: 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 50. zenbakia. 2000ko urtarrilaren 14a.

Hasi da Zaharkinak proiektua

Hamaika gaztek dihardute baserriz baserri lehengo tresnak zenbatzen

Gabonetako oportetan hasi ziren baserri baserri garai bateko tresnak zenbatzen eta bakoitzaren fitxa tekniko bat osatzen. 13 eta 14 urte arteko antzuolar neska talde bat ari da lan horretan. Gero erakusketa bat egitekotan dira eurek jasotako informazioa erabiliz.



Neska hauek ari dira Zaharkinak proiekturako informazioa batzen.

Aurreko batean kontatu genizuen bezala herriko baserrietan dauden tresna eta lanabes zaharren artxibo bat egiteko proiektua da Zaharkinak. Eta horretan hasi dira herriko hamaika lagun. Gabonetako oporrak aprobetxatuz hiru taldetan banatu dira eta baserri baserri joateari ekin diote. Bakoitzean aurkitzen dituzten gauzei fitxa tekniko batzuk osatzen dituzte: izena, non lortu den, erabilera, neurria, noizkoa den, zein baserrikoa den, nork eman dien informazioa eta zein egoeratan dagoen tresna hori. Azkenik tresna bakoitzari argazki bana ere ateratzen diote.

Hamaika neska eman du izena lan hau egiteko. Guztiak 13-14 urte bitartekoak. Eurek kontatu digutenez, "hasi familiako edo lagunen baserrietatik hasi gara, baina guztietara joan beharko dugu. Oportetan hasi eta gero zapatuetan ibili beharko gara, baina jakin badakigu baserriarendako zapatua ez dela egunik onena. Egun horretan kalera jaisten dira eta, guk, bertako zaharrenekin egon nahi baldin badugu ere eurak direlako gehien dakitenak, eurek, normalean, nahiago izaten dute seme edo alabaren bat baldin badago bertan; eta zaila izaten da une egokia topatzea. Dena dela, horretaz Udala arduratzen da".

Alazne Alberdi, Uxue Arregi, Iraia Gabilondo, Iraitz Gastiain, Edume Iturbe, Izaro Lizarralde, Maider Martin, Miriam Morais, Agurtzane Mujika, Maddalen Toledo eta Lierni Zubillaga ari dira lan horretan. Baserri bakoitzean 40 gauza baino gehiago aurkitu dutela baieztatu digute eta "200 urtetik gora daukatela esaten digute baserriarrek. Batzuetan, gainera, jakin ere ez dakite nolatan dagoen tresna hori euren etxean".

Kontatu digutenez "lan polita da eta gauza asko ikasten ari gara. Gainera

baserriarrei tresnak zertarako erabiltzen zituzten entzutea ikaragarria da". Bitxikeriak aurkitu dituztela ere esan digute: "Galardin trena zetorrela abixatzeko kornetia daukate oraindik, baina bestelakorik ere ikusi dugu: ur bedeinkatua eramateko pitxarra, odolostiak egiteko brontzeko ontzia, pisu erromatarra, gaztainak batzeko pintzak, zutiko-zerra, talo egiteko "talo-palia" edo "talo-palua".

"Tresna berdinei izen ezberdina ematen zaio batzuetan baserri batetik bestera, herritik gora edo behera". ■

■ ■ ■
Antzuolako baserri guztietara joango dira
hango tresnen berri jasotzeko
■ ■ ■

Lau urteren bueltan etxean da Juan Jose

Abenduaren 18an atera zen Basauriko espetxetik. Joan den zapatan on

Lau urte eta pare bat hilabete izan dela dio Juan Jose Aranburu, "Polleruak" espetxean egin duen denbora. Joan den abenduaren 18an atera zen eta bisitara joan zenak, Basauriko kartzelaren atearen aurrealdean aurkitu zuen Pollerua "periodikua leitzen". "Segurua be etzan 18xan irtengo nintzala eta horregaittik eneban ezer esan". Joan den zapatuan herri bazkaria egin zen herriko pilotalekuan. Ongi etorri bazkaria izan zen.



Z

er iruditu zitzaizun ongi etorria?

Barruan be pentsatzen giñuan aukeria eukiezkero, irten eta lagun gutxi batzurekin hor zihar

juango nintzala egun pasa. Askatasuna emoten dotsuen eguna hain da politta momentu hori, jente askorekin ezala apreziatzen. Baiña proiektiño publiko bat daukazu eta ixilixan ezin zara ibilli. Jente bat hor ibilli da zure alde eta gero militantismoz besterik ezpada egin bihar dozu. Baiña eneukan holako ongi etorritarako gogorik, baiña eskerrak emotia nahi jat jentiarri. Pasada bat izan zan, gehixegi. Dana dala, Eltzikorta, Iker Loiti eta beste danak etxian egon arte, lanian segittu bihar da presuen alde.

Zer itxura hartu zenion Antzuolari?

Lau urtian asko ezala aldatu. Hobera egin dau: baztarrak txukunaguak dare... baiña alde haundik pe ez, obra batzuk bai, baiña... Lizarraga auzuan egon nintzan eta basarriak pe oso ondo ipiñitta dare: Akiñabei, Laskurain txiki... Zatarrena frontoitzar hori: aldapia, harri sueltua, arbola bittartia... Etxe berrixekin konponduko dabe. Horretaz aparte, trafikua gehixago dago. Jentia be aldatu da, batez be zaharrak eta gaztiak. Zahar



Pollerua Eltzikortaren ama agurtzen.

batzuk "bajoia" emonda dare eta lehen patiñekin ibiltzen zien gaztiak orain zuri-tuak hartzen dittue.

Euskal Herriaren egoera aldatu da?

Hor bai aldatu dala. 1995ian egon zien sekuestruak, "Euskal Herria askatu" pankartiakin zela ibiltzen giñan... Barruan gendela be, Blancona, Ortega Larana... Su etenarekin be zela aldatu dan ikusi da. Ajuria Eneako paktuakin danak espāñolistekin eta gu bakarrik. Eta gero, espāñolak alde baten eta abertzaliak beste aldetik. Aldaketia egon da; lehen bakarrik genden eta orain abertzaliak batu egin gara eta espāñolistak geldittu die bakarrik. Lau urtetan Ajuria Eneatik Lizarra-Garazira.

Horretaz berba egiten zenuten?

Askok. Beste kontu haundirik be ezta egoten eta holako gauzak gertatzen

dienian asko berba egitten da. Baiña beti kontu igualak esaten, danok antzera pentsatzen dogu... ezta nobedadeik egoten.

Espetxe aldaketak nola bizi izan dituzu?

Lau urtetan bost kartzelatan egon naiz, baiña egin egitten zara laiste, 15 egunetan. Gaiñera kartzela danetan dago euskaldunen bat eta etzara bakarrik

"Sua pizteko txispia dirauak jentia mobitzeko lehenengusua dau. Onena litzake hobih...

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA

609 157 131

BERGARA

609 150 164

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatatu eta barnizaketa •

Patxi Aranburu, "Pollerua"

batzuetan ongietorria egin zioten udal pilotalekuan

inoiz egoten. Bestalde, mentalizatuta zare leku horretan aldi baterako egon behar zarela. Dana dala kanbixua ondo etortzen da jente berrixa ezagutzeko eta horrek ekartzen dotsu monotonixiak inapurtzia, zeldia garbittu biharra..., ze euskaldun bat daguan lekuan ordenia eta garbittasuna egoten da.

Pertsonalki zer ekarri dizu kartzelak?

Esperientzia bat. Miserixa hori ikustiak zeozertarako balio dabela uste dot, gauza txikixak apreziatzeko. Askatasuna kentzen dotsue eta gero ikusten dozu jente bat zela bizi dan, España osuan 50.000 edo gehixao: zela daren, kartzelatan zela bizi dien eta estaduak zela tratatzen dittuen... dabitx jentia zapalzen, marjinatzen eta jentia hiltzen. Kartzelia ezta problema konpontzeko bidia. Kartzelia kaja bat da, han problema sartzen da eta gero itxi egitten da. Baiña gero pertsona hori etaratzen dozu kalera eta zer egin bihar dau. Funtzionarixuak bai, baiña maistro gutxi. Kartzelia ezta soluziñua. Preso komunak ezta organizatuta eta darenak oso gutxi mogitzen die eta preso soziala sentitzen da oso bakarrik, ezin da kejav eta dana kontra dauka.

Gehixenak gaixuak die, drogak die-la eta barruan bukatu dabe eta beste

batzuk lapurrak die eta danak batera dabe.

Konponbidia konplikaua da. Batzuk igual salbauko zian estudixuekin eta, baiña beste batzuk...

Presoen aldeko talde asko sortu da Euskal Herrian. Antzuolan ere plataforma bat ari da lanean, zer deritzozu?

Jente asko mugitzen da, orain dala urte batzuk mugitzen zana begiratuta: Antzuola, igual, espezpiño bat izango da, baiña jentia gehixao mugittu bihar da. Ezta nahikua presuak ekarri bihar diela eta horren alde egotia.

Presoak ere euren borroka egiten ari dira, gose greba tarteko.

Tristia da lagun bat horrela ikustia. Eguna luze, triste, umoria galtzen da eta familixiak sortzen dan girua: ama negarrez... Eta ezta kondiziñuak. Osasuna arriskatzia da. Baiña egin egin bihar da: sua pizteko txispia dira presuak eta zenbait gauzatan jentia mugitzeko lehe-

nengo pausua presuak emon bihar dau. Onena litzake horren biharrik ez eukitzia eta jentia berez irtetzia, baiña barruan "follolla" montau bihar izaten da kalian mugitzeko.

Edozein modutan zeozer falta da, konbentzimentu hori falta dogu, esateko: ba hemen geldittu egin bihar dogu hau kopondu arte. Eztakit zer falta dan, baiña zeozer bai.

Egin dien gauza txiki honek danak positibuak die, baiña ia benetan erabakixa hartzeko balio dabena asmatzen dogun. Eta horrekin batera beste dana: autodeterminaziñua esaterako. Ezta go biderik gure erabakixa hartzeko. Urna bat jarri bihar da: kanpaiña on bat egin eta aukeratu eta hori egitten ezta bittartian... Oindiokan indarrak nahiko pare dare, baiña hemendik 25 urtera aukera hori mantentzen baldin bada, España badoia pikutara eta ezta nahi aukera hori emotia.



Eltzikortari agur bat:

Lasai hartzeko. Ointxe arte moduan gogor jarraitzeko. Besarkada haundi bat eta eutsiko jaula. Ez garela ahaztuko. Herriko bakarra bera dala eta segittu egingo dogula preso bat barruan daguan bittartian. ■



Patxi Olabarriak aurrekua dantzatu zion Polleruari.

irauak eta gauza batzutan
engusua presuak emon bihar
biharrik ez eukitzia"



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAREN bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Antzuolarron Independentzia Eguna

Urtarrilaren 15ean, zapatuan, ospatuko da Antzuolarron Independentzia Eguna. Goizeko 10:00etan hasiko da txistularien kalejirarekin eta 11:00etan herri probak egongo dira herriko plazan, Antzuola, Aiherra eta Donostiako Antiguozuzoan lagunen artean. Herri poteoaren

ondoren 14:00etan bazkaria egingo da herriko pilotalekuan. Dantzariak, trikitilariak, kuadrilen ekitaldiak eta txaranga egongo dira bazkalostean. 22:00etatik aurrera, Gaztetxean erromeria egingo da. Egun horretan baserriar jantzita ateratzea eskatu dute antolatzaileek.

BARKERORI OMENALDIA

Joan den abenduaren 17an auto istripuz hil zen Xabier Barkero antzuolar gazteari omenaldia egin zitzaion joan zen domekan Estala futbol zelaietan, Antzuola eta Eibartarrak taldeen arteko partidaren atarian. Xabierrek Antzuolako futbol talde nagusian jokatu zuen. Zelaira bi taldeetako kapitainek Xabierren 10 zenbakidun kamiseta atera zuten esku artean eta zelai erdiraino joan ziren, euren taldekideak atzetik zituztela. Hantxe, Estalara gerturatu zen jendea agurtu eta minutu bateko ixilunea egin zuten jokatu zuten hasi aurretik. Partidari dagokionez, 8 eta 1 irabazi zuten antzuolarrek, Berraondok, Bidaurrek, Arregik, Ibaiek, Juanpek, Elkorok eta Enekok sartutako golei esker.



Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Solfeo hasi bittartian irtetzen gara kanpora?

1.

2. Zure moduko praktikak dauzkate.

2.

Izen-abizenak eta telefonua:

idolaz bertako hizkeria
ANTZUOLA

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Zuk guri karameluak emon doskuzu.

2. lez be diskua erosi natsan amari.

Sarituak: Uxo Agire eta Xabin Murumendiaraz

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburategian, **DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.** Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuen ale bat zozketatuko ditugu hantxoestero.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR

taberna eta
gozotegia


Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak



Azken urte hauetan ardoaren prezioak gora egin duela entzuten dugunean, Errioxako ardoari buruz hitz egiten ari dela izan behar da kontuan. Beste ardoak ere garestitu dira, noski, baina ez neurri berean. Datozen lerroetan, Bergaran ardo kontuak nahiko ondo ezagutzen dituzten batzuen laguntzaz, prezio horien nondik norakoak azalduko ditugu.

JUÇARA XAVIER DE SOUZA

Ardoa ez da tabernetan bakarrik edaten. Baina urte askotan txikiteoan ibilitako eta ibiltzen den Julian Aiastuik dioen bezala, "elizara erreztazera joaten den moduan, tabernara ardoa edatera joaten da". Horregatik, hain zuzen ere, esan daiteke taberna dela edari hori gehien kontsumitzen den tokia, jate-txe, elkarte eta etxe partikularrak ahaztu gabe.

Bergaran hiru ardo mota saltzen dira tabernetan: korrientea, berezia (Errioxako jatorrizko izendapena duena edo ez duena) eta Errioxako ardo ondua. Txikitoak, hurrenez hurren, 45, 110 eta 175 pezeta balio du. Ikusten denez, diferentzia handia dago hiruren prezioen artean eta Errioxakoa da goitik nabarmentzen dena.

Errioxa bat!

Ohiturak aldatu egin dira eta tabernetan kalitateko ardoak eskatzen dira

ESPORTAZIOAREN ERRUA

Izan ere, Errioxako ardoak prezio-igoera nabarmena izan du azken urteotan. Urteko ardoaren botila, 97koa, 400 pezetan saldu zen orain dela 2 urte, iaz, 98koa, 500 pezetan, eta aurren, 99ko uztari dagokiona, 700 pezetan salduko


da. Garestitze honen arrazoi bila iazko urrian, Jardunen eskutik emandako enologia ikastaroaren irakasle izandako Mikel Garaizabal enologoarengana jo dugu. Eta hona hemen bere azalpena: "Prezioen igoera estatu mailakoa izan da, eta ez Errioxako ardoena soi-



Eusebio Txintxurreta

TABERNARI ERRETIRATUA

"Tabernariak ardoa bakarrik salduz gero, zorrak egingo lituzke"



Francis Sasieta

TABERNARIA

"Ardo berezia garestia dago tabernan, baina guri ere garesti iristen zaigu"



Pedro Mari Manso

ARDO-BANATZAILEA

"Lehen txikiteoan edaten zen ardoa oraingoa baino kalitate hobegoa zen"



Jose Ignazio Miner

ARDO-BANATZAILEA

"Jendeak, Errioxako ardoaren prezioak igo arren, hori kontsumitzen jarraitzen du"

lik. Baina Errioxakoa izan da gehien garestitu dena. Arrazoia? Esportazioan bilatu beharko genuke. European orain dela urte batzuk konturatu ziren ardo honen kalitate onaz eta prezio bazuaz eta garestiagoa zen Frantziako ardoa alde batera utzi eta Errioxakoa erosten hasi ziren. Ondorioz, hemengo bodegak hustu egin ziren, eta eskaera handia eta eskaintza txikia egonik, prezioek gora egin zuten. Baina prezio-igoeraren amaiera badator poliki-poliki, iaz esportazioak %20 jaitsi zirelako eta gehiago jaisten joango direlako".

Baina horrek ez du prezioen jaitsiera ekarriko, mantentzea baizik. Horrela dio esportazioaren kontu honekin ados dagoen Jose Ignazio Minerrek, "Miner ardo-banaketak" enpresaren arduradunak. Enpresa honek ardo banatzen du, Errioxako bodega baten kontzesioa duelarik: "Errioxako produkzio gehiena ardo ondua egitera zuzentzen da, esportatzeko, eta urteko ardo luxuxko produktua bilakatu da. Kontzesioa eman digun bodegak kupoak jarri dizkigu eta iaz 5.000 kaja saldu bagenuen, aurtun 1.200 kaja izango ditugu saltzeko eta iaz baino askoz ere garestiago, gainera. Horregatik, ardo ondu gehiago salduko dugu, honen prezioa ere nahiko altua izan arren (1.000 bat pezeta botilako)".

"RIOJITIS"

Hala ere, jendeak kontsumitu egingo du Errioxako ardo. Garaizabal eta Miner bat datoz Euskal Herrian "riojitis" dugula esatean: "Errioxakoa onena dela pentsatzen dugu, eta bertako ardo erosteak prestijioa ematen du. Protestak egon dira prezioak igo direlako, baina salmentak mantendu egin dira. Kanpoko ardo ere eskaini da, baina jendeak Errioxako ardo du nahiago."

Baina, ba al dago Errioxarentzako alternatibarik? Baietz diote Garaizabal eta Minerrek: "Kanpoko jatorrizko izendapena duten ardoak sartzen hasi dira gure merkatuan eta hor daude, Jumilla, Valdepeñas, Yecla, Toro, Samontano, eta beste toki askotako ardoak, baita estatu espainoletik kanpokoak ere. Nafarrak ere indarrarekin sartu dira eta Errioxakoen antzekoak dira, baina merkeagoak".

Gaur egun, ordea, jendeak nahiago du kalitateko ardo edan. Eta hori argi eta garbi ikusi da tabernetan.



Orain txikitero gutxiago dabil eta lehen baino ardo korriente gutxiago edaten da.

ARDO KORRIENTEA

Izan ere, tabernetan, geroz eta gehiago edaten dira orain arte aipatutako Errioxako izendapena dutenak, onduak eta bereziak, eta korrientea alde batera uzten hasi da. Ardo berezia "eskilarapekoa" gisa ere ezagutzen da eta taberna askotan erabiltzen dena ez da Errioxako izendapena duena, Errioxa bertakoa bada ere. Azken honek arrakasta handia omen du Bergaran.

Ardo korrienteari, berriz, txikiteoan ibiltzen direnen artean "peleón", "sieta-madres" edo "korrikalari" deitzen diote. Bergaran, "Manso Hermanos" da ardo mota honen banaketan tradizio handieneko enpresa, orain dela 50 urte sortu zenetik horretan diharduena. Ardo banatu aurretik, berriz, erosi, nahastu, kontserbatu, boteilatu eta saldu egiten du, guztia gaur egun enpresaren ardura daraman Pedro Mari Mansoren agindupean. Orain dela gutxira arte, ardo korrientea eta "eskilarapekoa" saltzen zuten, baina merkatuak emandako biraren ondorioz, Errioxako izendapena duten batzuk ere saltzen hasi da: "Ardo korrientea, lehengoa, Errioxakoa zen gehienbat, bertan egindakoa. Baina ardo hori modan jarri zen eta jatorrizko izendapena ere agertu zen, prezioek gora eginez. Orduan, beste leku batzuetako ardo ekartzen hasi zen, Mancha eta Madril ingurutik. Hau 70eko hamarkadaren hasieran gertatu zen eta kalitatearen jaitsiera nabarmena ekarri zuen. Geroago, 80. hamarkadan, ardo berezia hasi zen komertzializatzen eta gu ere horretan hasi ginen. Azken urte hauetan, berriz, jendeak kalitate hobegoko ardo eskatzen du eta horregatik hasi gara Errioxako bi bodega ezagunen banaketa egiten".

Ardo korrientearen kalitatearen beharadak eta txikiteoaren ohituraren aldaketak ardoaren kontsumoa jaitsi egin zuen. Horrela, Mansok, esaterako, bere garairik onenetan urteko 5,5 milioi litro saltzen zituen Gipuzkoa osoan eta gaur egun bi besterik ez. Eta Mine-
rrek adierazi duenez, honek ere ardo korrientea saltzen baitu, orain dela hamabost urte taberna batzuek asteko 20 kaja kontsumitzen bazituzten, gaur egun 4 edo 5 bakarrik.

TXIKITEOA

Bergaran, beste herrietan bezalaxe, tabernaz taberna txikiteoan ibiltzearen ohiturarekin jarraitzen dutenak gutxi dira. Horieta bat Julian Aiastui dugu, tabernara ardo edatera sartu behar dela dioena. Txikitero honek lehen aipatutako ohitura aldaketa antzeman du, gaurko gizonek ez baitute, lehen bezala, tabernara lagunekin egotera joateko beharrik. Orain, nahiago dute etxean geratzea, telebista ikusten eta epel-epel. Gazteek, gainera, bestelakoak edaten dituzte. Horregatik ez dira ikusten garai bateko adin guztietako 15-20 gizonez osatutako koadrilak, eta gertzen diren apurrak 4-5 lagunekoak dira soilik.

Julianekin bat datoz Eusebio Txin-
txurreta, tabernari jubilatua berria, eta Francis Sasieta, oraindik lanean diharduen tabernaria. Bi hauek ezagutu dituzte txikiteoaren garai onenak eta koadrilak goiz eta arratsalde, astegun eta jaiegunez ibiltzen ziren urte haiek.

Hiru lagun hauek oso egokiak dira txikiteoarekin lotutako gertakizunak gogora ekartzeko: txikiteoaren prezioa igo eta txikiteroek greba egin zutene-
koa, egunean 40 txikito hartzen zituen koadrilarena, ikurriña legeztatu zenean Eusebio taberna zaharrean 592 litro ardo saldu zirenekoa...

Ardoaren prezioaz galdedutakoan, erantzun ezberdinak ematen dituzte. Julianek, ardo korrientearen txikitoa ez dela garestia baina "eskilarapekoa" oso garestia dela dio. Francisek, tabernari-
ek prezio horiek jarri behar dituztela dio, beraiei ere prezio altuetan saltzen dietelako ardo. Eusebiok, ildo beretik, tabernariak ardo soilik saldud gero, zorrak egingo lituzkeela esan du.


Tabernan edo dendan eta ardo garestia izan edo ez, aukera zabala dago. Errioxan, esaterako, merkatuan izango da laster azken uzta, 99koa, eta adituek diotenez, urte honetako ardoaren kalitate oso ona izango da.<



Julian Aiastui

TXIKITEROA

"Txikiteoa ezin da ardo bereziarekin egin, oso garestia da; korrientearen doblea"



Mikel Garaizabal

ENOLOGOA

"Errioxako ardo da estatu mailan azken urteotan gehien garestitu dena eta esportazioak du errua"

Zein ardo edaten da Bergarako tabernetan?

	Korrientea	Berezia	Ondua
ARIZNOA	Manso	Termino de Ugarte (Errioxa)	Marqués de Vitoria (Errioxa)
IRRINTZI	Manso	Lambion eta Cordovin (gorria)	Marqués de Vitoria eta Marqués del Puerto (biak Errioxa)
GURIA	Atxega	Termino de Ugarte (Errioxa)	Marqués de Vitoria (Errioxa)
EUSEBIO II	Manso	Lambion eta Cordovin (gorria)	Añares (Errioxa)
AGIRREBEÑA	Manso	Lambion eta Viña Apitxo (gorria)	Cune (Errioxa)
INFERNUKUA	Lopez Ojeda	Lambion	Marqués de Vitoria eta Marqués de Sonsierra (biak Errioxa)
AMILOTX	Bolintxo	Viñadores artesanos (Errioxa)	-
INTXORTA	Atxega eta Manso	Lambion	-
TOKI ONA	Egunon	Lambion	-
POL-POL	Atxega eta Manso	Lambion, Viña Apitxo (gorria) eta Rueda (zuria)	Marqués de Vitoria (Errioxa), Marqués del Puerto (Errioxa) Viña Berceo (Nafarroa)
	Prezioa: 50 PTA	Prezioa: 110 PTA	Prezioa: 175 PTA



Loramendi kirolak

%30

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Prakak
- Sudaderak eta abar


BEHERAPENAK!

Zapatilak

%20-50

San Andres eta Garibain, Arrasaten

Mariaren Lagundia Ikastolako



Ateak zabalik

Urtarrilaren 22an

11:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 18:30etara

Haurtzaindegi zerbitzua


egongo da umeekin bisitaldia egin nahi duzuenontzat

*Mariaren
Lagundia
Ikastola*

*200 urte
Bergeran
heziketa-lanean*



Mariaren Lagundia Ikastola, Espoioa 1. Tf. 943 76 25 40.



Artxiboko argazkian, Bergarako Udal Pilotalekuan jokaturako partidu bateko irudi bat.

Udal pilotalekua Aspek eta Asegarcek jestionatuko dute

Begarako Udalarekin negoziazioak aurrera doaz

Begarako Udala Aspek eta Asegarce enpresekin negoziazioetan ari da bi enpresek aurten Udal Pilotalekuaren ustiakuntza konpartitu dezaten.

Udalak duela hiru urte bost urteko kontratua sinatu zuen Asegarcerekin Bergarako frontoiaren jestionatzea Asegarceren esku uzteko. Aurten, berriz, badirudi bi enpresen artean jestionatuko dutela Udal Pilotalekua eta hitzarmen berria sinatuko dela. Aste honetan bertan Victoriano Gallastegi alkatea Fernando Vidarte Aspe enpresako administratzailearekin bildu da eta negoziazioak bide onetik doazela azaldu digu alkateak: "oraindik ezin da ezer aurreratu baina pilotaren bate-

ratzearen alde akordio batera iritsi nahi dugu. Guretako interesgarria litzateke bi enpresa horiek Udal Pilotalekuaren ardura izatea". Aipaturako akordioa datozen egunotan sinatu daiteke.

Fernando Vidarteren arabera, "gure enpresa interesatuta dago Bergarako frontoian jaialdiak antolatzeko, izan ere Bergara eta inguruko hainbat pilotari gure nominan dira".

MURUAMENDIARAZEN DEBUTA

Hasiera batean, Aspek Bergaran antolatutako lehen jaialdia datorren otsailaren 13koa izango da. Vidarteren arabera, egun horretan Iker Muruamendiarazek debutatuko luke profesioletan. Era berean, jaialdi berean, eskuz binakako txapelketa-

ko Etxaniz-Elkoro eta Goñi II.a-Zezeagaren arteko partidua programatuko litzateke.

TXAPELKETA

Astebukaeran jarriko da martxan eskuz binakako txapelketa. Etxanizek eta Elkoro domekan Eibarren debutatuko dute, Capellan eta Bernaren aurka. Zezeaga, berriz, Goñi II. arekin arituko da eta lehenbiziko partidua martitzenean jokatuko dute, Mungian, Olaizola I.a eta Auxkinen aurka.

Bergaran pilota jaialdia izango da bihar, zapatua. Estelarrean Nagore-Erandonea eta Unanue-Errasti bikoteak izango dira aurre. Aspek eta Asegarceko pilotariak multzo ezberdinetan arituko dira sailkatze fasean.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Zestoa

Bigarren mailako kadeteak
Zapatua. 15:15. Ipintza

Bergara-Ilintxa

Lehen mailako kadeteak
Zapatua. 17:00. Ipintza

Bergara-Texas B (Lasarte)

Bigarren mailako jubenila
Domeka. 11:00. Ipintza

ARETO FUTBOLA

AD Lagunak-Ataun

Jubenil mutilak
Domeka. 10:30. Kiroldegia

T. Ola Bergara-Arditurri

Emakumezkoak
Domeka. 12:00. Kiroldegia

ESKUBALOIA

Bergara-Leitzarar

Kadete neskak
Zapatua. 12:00. Kiroldegia

Bergara-Hernani

Jubenil neskak
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Bergara-Donibane

Senior mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Bera Bera Gros

Senior neskak
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

PILOTA

PROFESIONALAK

Gorostiza-Pinedo/Arbizu-Galarza IV.a

Nagore-Erandonea/
Unanue-Errasti (txapelketa)
Salaberria-Imaz/
Koka-Taberna

Bihar, zapatua, 16:30etan
Udal Pilotalekuan

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Xabier Garitaonandia-Urdin Alberdi/

Mikel Salegi-Ibai Altuna

Pilota eskolako infantil maila

Asier Larrañaga-Beñat Iñarra (Bergara)/Hernani

Kadeteak. Gipuzkoako liga
Denak gaur, eguakitzan,
19:30etan Udal Pilotalekuan



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Amilotx-Agirrebeña Jatetxea
19:00: Bayer-Patxaran Team
20:00: Xurruapak-Aterpe

Moskis
Xurruapak
Patxaran T.

ZAPATUAN KANPOAN

10:00: Mo(ko)lotov-Moskis
11:00: Shaktale-Uve Bikoitza
12:00: Vacalouras-Soropotoak
16:00: A Ze Flaxa Etxagi-Agiñazpi
17:00: Pagomendi-Irubide Jatetxea

Shaktale
Valacouras
U. Bikoitza
Pagomendi
Agiñazpi

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Mongatxurruk-Patatus
17:00: Buya-Torrekua
18:00: Fac-Bar Canalejas
19:00: Urrutxurtu-Amozkibar
20:00: Sirimiri Eri-La Juve

Torrekua
Canalejas
Amozkibar
Sirimiri Eri
Urrutxurtu

DOMEKAN KANPOAN

09:00: Errotagain-Txipiron
10:00: Artusamak-Guadalest
11:00: Ari Ari-Azpeitxi Jatetxea
12:00: Ufala-Komando Piperrak

Artusamak
Azpeitxi
K. Piperrak
Ari Ari

EMAITZAK

A MULTZOA

Irubide Jatetxea-Mo(ko)lotov	10-2
Pinturas Bergara-Sirimiri Eri	4-4
Etengabe-Ari Ari	6-1
La Juve-Azpeitxi Jatetxea	1-13

B MULTZOA

Patatus-Amilotx	2-6
Agirrebeña jatetxea-Bayer	3-9
Tom Cat-Bildurbarek Opel Lam	1-16

C MULTZOA

Buya-Ion autoak	1-6
Soropotoak-Shaktale	1-4
Uve Bikoitza-A Ze Flaxa Etxagi	2-6
Torrekua-Ortzi	4-10

D MULTZOA

Komando Piperrak-Fac	3-12
Txipiron-Xurruapak	2-5
Guadalest-Ufala	8-1
Bar Canalejas-Errotagain	3-3

GORA ETA BEHERA



Azpeitxi, Bildurbarek, Etengabe, Ion Autoak

Azpeitxi eta Bildurbarek taldeek jardunaldiko goleadarik handienak lortu zituzten, La Juve eta Tom Cat taldeei 13-1 eta 16-1 nagusituz. Bestalde, Etengabe eta Ion Autoak taldeek garaipen garrantzitsuak lortu zituzten.



Patatus

Bigarren itzuleran Patatus taldea ere makal hasi da, zapatuan 2 eta 6ko emaitzarekin galdu baitzuen Amiloxen aurka. Bi taldeak B multzoko azken tokietan ditugu.

ARGI!

Berriz ere jokoan

Gabonetako atsedendaldiaren ostean, jarri da martxan berriz txapelketa, bigarren itzulerako partiduei hasiera emanez. Beraz, sailkapenari begira, partidu erabakiorrak izango dira aurrerantzean jokatu beharrekoak.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	27	10
2. Azpeitxi jatetxea	24	11
3. Sirimiri Eri	23	11
4. Irubide Jatetxea	22	10
5. Pinturas Bergara	13	11
6. Etengabe	12	11
7. Ari Ari	10	11
8. Mo(ko)lotov	7	10
9. Moskis	6	10
10. La Juve	3	11

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	28	10
2. Ortzi	27	11
3. Shaktale	19	10
4. Uve Bikoitza	19	10
5. Agiñazpi	13	10
6. Ion Autoak	12	11
7. Vacalouras	11	10
8. Buya	10	11
9. Torrekua	4	11
10. Soropotoak	3	10

B multzoa

	P	J
1. Bayer	23	10
2. Amozkibar	22	10
3. Bildurbarek Opel Lam	19	11
4. Mongatxurruk	18	10
5. Urrutxurtu	17	10
6. Patxaran Team	14	10
7. Agirrebeña Jatetxea	10	10
8. Amilotx	9	10
9. Tom Cat Argandolas	9	11
10. Patatus	0	10

D multzoa


	P	J
1. Errotagain	26	10
2. Bar Canalejas	22	10
3. Artusamak	22	10
4. Fac	20	10
5. Guadalest	19	10
6. Xurruapak	15	10
7. Txipiron	10	10
8. Aterpe	4	10
9. Komando Piperrak	1	10
10. Ufala	-2	10

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

mahoneroak



TXONAN GALLASTEGI
Bergarako jokalaria

Errege bezperan eta domekan etxean jokatuak bi partiduetan puntu bakarra lortu dugu eta emaitza horiek ez dira pozik egoteko modukoak. Bi partiduetan ere aurretik jarri ginen markagailuan baina ezin izan genion garaipenari eutsi. Durangoren aurka, beharbada, zorte pittin bat falta izan zitzaigun eta beraiek jokalaria bat gutxiagorekin lortu zuten berdinketa.

Domekan, partidu txarra jokatu genuen Amorebietaren aurka. Gu baino hobeto jokatu zuten eta gure taldeak nahiko atzeratuta jokatu zuen ia partidu osoan zehar. Partidu garrantzitsua zen zornotzarrak aurkari zuzenak direlako jaitsiera postuak ebitatzeko orduan.

Baskoniaren aurka punturen bat lortzen ahaleginduko gara. Ea bolada onean sartu eta gora egiten dugun domekatik aurrera.



Durangoren aurkako partiduan etxekoan aldetik honako hauek nabarmendu ditugu:

Arkaitz Arana 3 puntu
Josetxo Lizarralde . 2 puntu
Jon Andueza Puntu 1

Amorebietaren aurkakoan beste hauek nabarmendu ditugu:

Asier Rodriguez . . . 3 puntu
Ander Berraondo . . 2 puntu
Etor Laskurain Puntu 1

Etxeko partiduak hartzen dira kontuan.

kronika lehen mailako jubenil futbol taldea

Gol zaparrada Ipintzan

BERGARA 11

ORIOKO 0

Bergara: Andoni Martin, Xabi Egidazu, Xabi Lete, Andoni Arrieta (Markel Lazpiur, 40. min.), Xabier Etxaniz (Andoni Arbulu, 55. min.), Mikel Altuna, Martin Zaitegi (Asier Bolinaga, 70. min.), Ion Alzola (Jose Mari Larrañaga, 60. min), Ignacio Dobaok, Mikel Otero eta Iñaki Mujika.



Jubenil taldea osatzen duten jokariak Gabonetan ateratako argazkian.

Gabonetako gazte mailako txapelketako finalean Realari 2 eta 1 nagusitu ondoren, Bergarak sasoi ezin hobean dagoela erakutsi zuen zapatuan Ipintzan. Gorka Zelaiak eta Xabi Zangituk entrenatzen duten tal-

deak denboraldiko goleadarririk handiena lortu zuen oriotarren aurka eta lidergoari eutsi zioten. Zapatu honetan lehen itzulerari amaiera emango diote Sorluzen jokatu beharreko partiduan eta mahoneroak sailkapeneko lehen postuan di-

ra. Orain arte jokaturako 16 partiduetatik 13 irabazi, bi berdindu eta bakarra galdu dute bergarrek.

Zapatuan, esan bezala, partidu borobila jokatu zuten eta Ipintzan bildutako ikusleek etxekoekin jokoarekin gozatu ahal izan zuten.

Atsedendian bost goleko abantaila lortu zuten eta jarraian beste sei gol sartzeko gauza izan ziren. Iñaki Mujikak 6 gol egin zituen, Ignacio Dobaok bi, eta Martin Zaitegik, Mikel Oterok eta Jose Mari Larrañagak bana. Iñaki Mujika ligako goleatzaile onena dugu, 26 golekin. Zapatuan gol ederra egin zuen bigarren zatirean hasieran Dobaoren erdiraketa buruz errematatzean.

Gorka Zelaiak bigarren urtez ari da jubenil taldea zuzentzen. Bere hitzetan, "taldea primeran ari da eta jokariak konfiantza handia hartu dute Gabonetan Realeko lehen taldeari irabazi ondoren. Gure helburua ohorezko jubenil mailara igotzea litzateke eta horretarako lehen postua eskuratu beharko dugu liga amaieran. Ea bigarren itzuleran orain arte bezala jarraitzen dugun".

Bergarak hiru puntuko alde ateratzen die Eibartarrak, Amaiak Bat eta Zumaiako taldeei. Hain zuzen ere, ligan galdutako bi partiduk eibartarren eta zumaiarren aurka galdu dituzte Zelaiaren mutilek.

ION UNAMUNO / Txirrindularia

"Talde berriko kirol aukerak hobeak dira"

Ion Unamunok (21 urte) Saunier Duval taldean korrituko du aurten. Iaz Iberdrolan aritu ondoren, bere ustez kirol aukera hobeagoa izango du Josean Fernandez "Matxin"ek zuzentzen duen taldean. Astebukaeran lehen kontzentrazioa egingo dute Mirandan.

G. Zergatik aldatu zara taldez?
E. Hobetzeko asmotan, Saunier Duval taldean profesionaletar igotzeko aukera gehiago dagoela uste baitut. Iberdrolak ONCErekin harremanak ditu baina zaila da hortik profesionaletar igotzea. Gure zuzendariak, berriz, oso harreman ona dauka Mapei taldekoekin eta italia-

ren filialak izango gara. Aurtengoa nire laugarren denboraldia izango da afizionatueta eta azkena izateko itxaropena daukat.

G. Zein asmo aurtengo?

E. Sasoi onean nagoen lasterketak disputatzea eta hain ondo ez nagoenean ba aurreko taldean sartzea.

G. Urteko zein sasoi ibiltzen zara ondoen?

E. Maiatz eta ekain aldera eta denboraldi bukaeran. Uztailean nire errendimenduak zertxobait behera

egiten du.

G. Orain neguko kiloak kentzen hasi behar...

E. Fetxa hauetan bestetan baino finago nago, 73 kilorekin.

Martxorako 70 kilotan egotea espero dut eta udan 68 inguru izaten ditut.

G. Taldekide berriak ezagutzen dituzu?

E. Ez. Astebukaeran lehen kontzentrazioa egingo dugu Mirandan elkar ezagutzeko. Martxo hasieran ekingo diogu denboraldi berriari.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Antzuolan pisua salgai. 943 76 65 65.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

Fraiskozuri. 943 76 54 24.

EROSI

Pisua erosiko nuke Zuraderon. 943 76 52 31.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuola. 943 76 60 16.

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan etxea alokatuko nuke. 629 01 56 91.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 76 50 77 (Manu).

ETXE KONPARTITUAU

Pertsona bat behar da

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskajerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskajerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

etxe bat konpartitzeko. 943 76 31 23.

Pertsona bat behar da Bolun pisua osatzeko 943 76 08 00 (Alberto).

2. GARAJEAK

SALDU

Torrekuan garajea salgai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24 / 39 49 78.

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

ERRENTAN EMATEKO

Soto bat alokairuan edo salgai Matxiategin. 166 m². 943 76 28 09.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokala (50-70 m²) errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. Deitu 943 76 62 63 telefonora.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

Lokal bat salgai edo alokairuan. Bulego lanerako prestatuta. 58 m². 607 344 658.

EROSI

Lokal komertziala erosi

nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arrurriagan (18m²) lokalak. 606 96 23 80.

4. LANA

ESKAITZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Haurrak zaindu edota

etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia. 943 76 72 31 (gauez).

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsaldean. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

Emakumea goizez lan egiteko prest. 607 326 706.

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Etxeak orduka edo atariak. 943 76 13 46.

Txoferra lanerako prest. C eta C-1 gidabaimene eta garraioetarako dituen. 943 76 30 34.

23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

IKUSBI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irala 5 ☎ 943 76 53 09

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Neska eskaintzen da tabernari lanak egiteko. 943 76 71 03.

Neska astebukaeretan lan egiteko prest. 629 01 56 91.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 53 66 (Mari Cruz).

ESKAERAK

Neska behar da: haurrak zaindu eta etxeko lanak. 943 76 04 64.

Emakumea behar da: bi haur zaindu eta etxeko lanak. 943 76 19 16.

Etxeko lanetarako (goizez) esperientziadun neska behar da. 626 17 79 27.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Majistriztan diplomatuak OHoko klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeleseko eta frantse-seko klase partikularak. 943 76 33 26 (Agurtzane).

Kimikan lizentziatuak klaseak ematen ditu.

943 76 42 08.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHoko klaseak arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. 943 76 02 55 (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Suzuki GS 500 E motora. 943 76 31 52.

Seat Ibiza (SS-AB) kotxea. 943 76 00 69.

Suzuki DR 650 motora. 943 76 52 08 (Sonia).

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauzez).

Ford Escort 1.300 egoera onean. 150.000 pezeta. 943 76 05 62.

Golf GTI kotxea (SS-AG) salgai. Kolore zuria eta lau ate. 943 76 13 18.

Opel Ascona 2.000 i (SS-X). 943 76 41 14 (gauzez).

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer arrazako txakur-kumeak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK

SALDU

Petroliozko estufa berria. 943 76 59 68.

Butanozko sukaldea salgai. 943 76 46 14.

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Apalak. 943 76 25 79.

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. Berri-berria, 10.000 PTA. 943 76 55 63.

Play stationa: 3 joku,

mandoa. 943 76 52 16.

Airwalk snowboarda eta fijazioak. 943 76 45 07.

Chaman piragua, txalekoa, pala eta kotxeko barrak. 943 77 01 74 (Felix).

Kerosenozko estufa ia berria. 943 76 01 99.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi baffle. 943 88 73 13.

Arrue kotxe-aulkia salgai. 943 76 07 60.

EROSI

16 mm.ko zine proiektorea erosiko nuke. 943 76 58 37.

Bizikleta-rodillo finkoa erosiko nuke. Deitu 943 75 23 79 telefonora (Ana).

HARTU

Sukalderako armairua behar dugu. 943 76 11 98.

Berogailuak behar dira familia batzuekiko, butanozkoak nahiz elektrikoak. 943 76 72 77 (Caritas).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Arabar lautada. 26590/4

AIRE GIROTUZKO SISTEMEN MUNTATZAILEA
Bilbo. 26690/5

FUNDIZIORAKO LANGILEA
Durangaldea. 26922/4

FUNDIZIORAKO LANGILEA
Durangaldea. 26923/3

ESKAIOLISTA
Donostialdea. 26924/3

PLADUR JARTZAILEA
Donostialdea. 26926/3

KIROLETAKO MONITOREA
Plentzia-Mungia. 27010/3

KANTEROA EDO ARGINA
Debabarrena. 27126/2

HOBETUZ PROGRAMARAKO TEKNIKARIAK, 3
Bilbo. 27034/2

HOBETUZ PROGRAMARAKO TEKNIKARIA
Bilbo. 27035/2

HOBETUZ PROGRAMARAKO TEKNIKARIAK, 3
Bilbo. 26038/2

OBRAKO ARDURADUNA
Durangaldea. 25140/9

KOMERTZIALA
Bilbo. 26214/4

ILEAPINTZAILEA
Bilbo. 26306/2


ELEKTRONIKA TEKNIKARIA
Ezkerraldea. 26455/2

TRAILER GIDARIA
Ibai eskumaldea. 25969/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

PELLO ALBERDI



p i n t u r a
e r a k u s k e t a

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

**Pertsona behar da
ARRAINDEGIAN
lan egiteko**

606 962 380


**Zapelaitz taberna
ALOKAIRUAN
30 lagunendako
jantokia du**

943 76 12 86

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32




Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Justo Garate beka eskatzeko epea zabalik

Historiari buruzko gaiak jorratuko dira aurtengo deialdian



Justo Garate zenaren omenezko beka kalean da.

1992tik, Bergarako Udalak urtero ematen du ikerketa beka bat gazteei zuzenduta, Justo Garate bergararren omenez. Beka honen helburua, giza zientzien alorrean gazteen artean ikerketa sustatzea da.

Euskal Herriari dagozkion Soziologia, Historia eta Euskal Filologiari zuzendutako beka den arren, urtero gai bakarra proposatzen da ikerketarako, eta aurtengoan Historiari soilik zuzendua egongo da. Iaz, Iker Lezamiz gernikarrari eman zitzaion, eta "Elkarri Bakearen Aldeko Koordinakundea eta alderdi politikoak Euskadin" ikerketa burutzen dihardu. Bekadunari milioi bateko diru-laguntza emango zaio, eta hamaika hilabeteko denbora izango du ikerketa lana burutzeko.

Beka hau norbanakoek edo taldeek eskatu ahal izango dute, eta ez da beharrezkoa bergararra izatea. Honako

baldintza hauek bete beharko dituzte besteak beste: diplomatua edo maila bereko tituluduna izatea, 35 urte baino gutxiago izatea eta EGA edo titulu baliokideren baten jabe izatea.


Eskaera egiteko inprimakiak Udaltxean jaso ditzakete interesatu guztiak, eta eskabide orriarekin batera, espediente akademikoa, *curriculum vitae*, lana nola burutuko luketenari buruzko memoria bat eta nortasun agiriaren fotokopia bat entregatu behar dira. Eskabidea egiteko epea otsailaren 15era arte egongo da zabalik, eta aipatutako dokumentazio guztia Bergarako Udaltxera eraman edo bidali beharko da.

Erabakia Ebaluaketa Batzordeak hartuko du, eta bekaduna hautatzera koan irizpide ezberdinak erabiliko diren arren, kontutan hartuko dira besteak beste, espediente akademikoa eta curriculum, ikerketaren interesa eta Bergararekin duen harremana.


Eskaparate onenei sariak

Urtero bezala, aurtengo Gabonetan ere, eskaparate lehiaketa antolatu dute Bergarako Udalak eta Bedelkarrek. Abenduaren 15erako dotore prestatuta zituzten jadanik beraien eskaparateak dendariak, eta hilaren 24an jakinarazi zuen bere erabakia epaimahaiak. Lehendabizi aurre-hautaketa bat egin zen eta 16 eskaparate hartu ziren kontutan.

Azkenean, 16 horietatik bost hauek saritzea erabaki zen: Baster, Kilika, Subijai, Kanela eta Gisasola. Sari banaketa abenduaren 27an egin zen Kultura Etxean, eta han izan ziren irabazleak, eta Bedelkar eta Udaltxeko ordezkariak. Irabazle bakoitzak 25.000 PTA eta garaikurra jaso zuen. Antolatzaileek eskerrak eman zizkieten dendariak.



Lehiaketan sarituak eta Udaleko eta Bedelkarreko ordezkariak.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



Edu eta Eli dantzariak Kepa Junkeraren ikuskizunean parte hartu zuten. Argazki txikian, Anari.

Kontzertu ugari Gabonetan

Junkera, Anari eta Loreleirenak arrakastatsuenak

Abenduaren 26an The Basque Country bergarar eta elgoibartarrez osatutako taldeak ordu t'erdia inguruko kontzertua eskaini zuen Go Jam aretoan. Bertaratu zen jende mordoxkak kalitatezko country musikaz gozatzeko aukera ederra izan zuen.

Hurrengo egunean, berriz, astelehenean, Lagunak elkarteak nesken futbol taldeentzat dirua biltzeko antolatutako kontzertua izan zen. Bertan aritu ziren Saioa eta Izaro, Iosune eta Edurne, Aitzol Mujika, Tanatos, Zakateko eta Los Padrinos. Baina astelehena izaki, eta eguraldiak ere lagundu ez zenez, antolatzaileek ez zuten beraien helburua lortu, eta dirua bildu beharrean, galerak izan zituzten, oso jende gutxi hurbildu baitzen Jam aretora.

Abenduaren 30ean, berriz, Kepa Junkera eta Anari izan genituen, Jam aretoan hauek ere. Oraingo honetan

jende ugari bildu zen. Gustora egon zen jendea euskal musikaz eta dantzaz gozatzu, esan behar baita Junkerak lagun ezinhobeak izan zituela eskenatokian, Edu Muruamendiaraz eta Eli Alberdi dantzari ezagunak hain zuzen ere.

Urtarrilaren 4an, Lorelei talde eibartarrak "Tatuatu zenidan zerua" bere azken diskoaren aurkezpena egin zuen Go Jam-en, aurkezpen ofiziala atzo izan zen arren Kafe Antzokian. Jende ugari bertaratu zen diska berriko kantak zuzenean entzuteko asmoarekin.

Urtarrilaren 8an, azkenik, Color Humano eta Marea taldeak aritu ziren. Biek ere etniko bezala definitu daitekeen estiloa jorratzen dute. Color Humano Katalunia eta Pariseko artistek osatzen dute. Marea, berriz, Euskal Herriko musika taldea dugu, Iruñeko hain zuzen ere.

erreseinak



Joxe Azurmendi
Euskal Herria krisian
Saiakera

Egileak argi dauka: "Euskal Herria krisian dago", eta horixe da hain zuzen ere oraingo honetan aurkezten digun liburuaren izenburua. Bere azken lan honetan ere, azkenaldiko bere liburuetan bezalaxe, euskal errealitateaz egiten du gogoeta. Eta testuinguru horretan gai ugari jorratzen ditu, hala nola, etikaren balioa, borroka armatua, eta nazio txikiak. Azurmendik kongresu ezberdineterako prestatutako saiok biltzen dira: "Nietzscheren itzal argia", "Pentsamenduaren porrota" eta "Indarkeria eta balio berrien bilaketa".

- Elkarlanean. 280 orri. 2.350 PTA



Joseba Sarrionandia
Hau da ene
ondasun guzia
Poesia eta kantuak

Eskaintza berezia plazaratu dute oraingoan Txalaparta argitaletxeak eta Esan Ozenki disketxeak; Sarriren poemak eta hainbat kantari eta talderen kantak biltzen dituzten diska eta liburu hain zuzen ere.

Diskoan, Sarrionandiak berak irakurtzen dituen bere hamasei poemez aparte, beste hamasei kantari eta taldek egindako kantak biltzen dira. Liburuari dagokionez, diskoko poemak hitzak, Sarrionandiak hautatutako beste zortzi poema, bere biografia labur bat eta bibliografia komentatu bat aurkitzen ditugu.

- Txalaparta/Esan Ozenki. 2.900 PTA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Emakume. 2. Erromako hizkuntz zaharra. 1998an.
3. Bizkaieraz, ote. Aitaren aita. 4. Baztertu. Aurrizki.
5. Metalen erakarlea. Karrika. 6. Dago. Gai. Lehenengoa.
7. Ut! Boroa. Ikas eta Ari. 8. Alkaloide toxikoa. Sufrea.
9. Alderantziz, alderdi karlista. Atseginak.
10. Kaltzio-oxido. Merkatua.

Goitik behera

1. Bi hizkuntz menderatzen dituenak. 2. Zientzia-mota.
3. Irten. Gizon izena. 4. Modu atzikia. Gizon izena. Bokal.
5. Behien zaintzaileak. Herri hizkeran, eta. 6. Sarri. Trebea.
7. Bokala. Neurri apaleko. Mendebaldean, naiz. 8. Arrazoi. Bokala. Trebe. 9. Txorrotak. Nor, pluralean. 10. Zuberoako herrixka. Askatu aditzaren infinitiboa.

Soluzioa

10. Ozaiz. Aska.
 9. Kanliak. Ak.
 7. E. TIKI. Naz. 8. Zio. A. Iaino.
 5. Unaiak. Ta. 6. Maiz. Abila.
 3. Atera. Iker. 4. Ki. Eneko. E.
 1. Ebehidunak. 2. Matematika.
 Goitik behera
 9. ake. Alaiak. 10. kare. Azoka.
 7. Urki. B. IKA. 8. Nikotina. S.
 5. Inana. Kale. 6. Da. Ekai. A.
 3. Ete. Aitona. 4. Berezi. Iz.
 1. Emakumezko. 2. Latina. Iaz.
 Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Ze izen dute bi baserri hauek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Deba Garaiaren ordez, ze izen onartu du Euskaltzaindiak gure bailararako?
 A- Debaguena
 B- Debagurena
 C- Debagoiena
2. Aurten Gipuzkoan jaiotako lehen umea bergararra da. Zein da bere izena?
 A- Danel Miner Irizar
 B- Danel Diaz de Gereñu Serrano
 C- Danel Ruiz Bazan
3. Justo Garate bekako deialdia egin berri da. Nor izan zen iazko edizioko bekaduna?
 A- Igor Lezamiz
 B- Mari Jose Olaziregi
 C- Iker Barandiaran



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Marisabel Egibarrentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Marisabeli! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Mekolalde**
 Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Urzantesol
 ekilore-olioa, litroa
100 PTA!
 Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Orain dala 7 urte ireki zeban Itxas Eder arraindegixa senarrarekin batera, Jose Gaunarekin. Normalian Ondarrutik ekartzen dabe arraina gaueko ordu txikixetan. Horregatik dabil beti lo faltan.

Miren Elorriaga

Gustatzen jatzu arraina?

Asko.

Zein da gehixen gustatzen jatzuna?

Lenguadua plantxan.

Antxoak ala bixigua?

Bixak.

Askotan jaten dittuzu angulak?

Ez! Urtian behin edo bittan. Garestiak dira.

San Sebastian egunerako zenbatean egongo dira?

Ez dau jakitterik eguna iritsi arte.

Arraindegixan inoiz saldu dozun arrain arraroena.

Fletan izeneko bat, 123 kilokoa.

Bergarrek zer erosten dabe gehixen?

Legatza, oilarra, perlitak,... Baina, gehixena, antxoa.

Hotza pasatzen al da arraindegixan?

Asko.

Amantal zurixaz gain, zer gustatzen jatzu jatzia?

Normal, bakeruekin.

Noiz hartzen dozu jai?

Zapatu arratsaldian eta domekan.

Eta astelehen arratsaldian.

Eta zer egitten dozu jai dozunean?

Nere gauzetarako hartzen dot astixa.

Senarrarekin lan egittia gustatzen jatzu?

Ez.

Zeinek agintzen dau?

Bixok.

Eta etxian?

Nik.

Etxeko lanak zeñnek egitten dittu?

Alabia eta hiruron artian egitten dittugu.

Oporrak nun: mendixan ala hondartzan?

Azken 7 urtietan ez dot hartu oporrik.

Bestela, hondartzan.

Goizian goiz jaikitzia gustatzen jatzu?

Ez. Oso gogorra da.

Denbora librerako afiziñorik?

Daukadan denbora libre apurra, lo egitteko aprobetxatzen dot.

Etxeko zapatillak edo kaleko oinetakuak?

Zapatillak.

100 milioi irabaziz gero...

Mundua ezagutzera jun.

Tokatu jatzu loterixia Gabonetan?

Bapez.

Telebistako programa bat eta aurkezle bat.

"Sorginen laratza" eta Klaudio Landa.

Pelikula bat

"Pretty woman".

Abesti bat.

Adamoren "Tus manos en mi cintura".

Bergarako toki politiena.

Nere auzoa: Labegaraieta.



KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ZAREN

Ume eta
gaztetxoendako
oinetakoak

chicco

oinetakoak ere
baditugu

Telesforo Aranzadi 2.
943 76 29 52



Udaberrian,
emakumeendako
oinetakoak ere
izango ditugu

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

LAKET

gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



Aranzadi ikastolan, 1974

Bukatu dira Gabonetako oporrak eta ikasle gaztetxoak bueltatu dira klasera dagoeneko. Olentzerok ekarritako opariak eta Gabonetako kontuak komentatzeko aukera izango dute oraindik ere. Goiko argazkian agertzen direnei urrun geratzen zaizkie eskola egunak, izan ere bertan agertzen direnak 1968. urtean jaiotakoak dira. Argazkia lehen mailan ari zirenean atarazietan, 1973-74 ikasturtean hain zuzen ere. Consuelo Errasti zen beraien andereñoa eta hor ditugu ikasleak, batzuk amantalarekin (neskak larrosa kolorekoa eta mutilak urdina, orduan ohi zen bezala), beste pare bat Realeko kamisetarekin eta bakeroen sonbrerua eramaten zuenik ere ikusten da. Horra hor erretratuan agertzen direnen izenak, ezkerretik esku-mara:

Zutik: Arantxa Arreseigor, Xabier Garitano, German Lete, Jose Luis Agirrezabal, Luis Mari Balentziaga, Joakin Elkoroberezibar, Idoia Linazisoro eta Alex Azkarate.

Bigarren ilaran: Nerea Akizu, Amadeo Corrius, Josune Mendikute, Iosu Zabalo, Mikel Gonzalez, Joseba Otaño, Joseba Perez eta Martin Mendibil.

Hirugarren ilaran: Javi Moreno, Josemi Laskurain, Nerea Bergara, Jokin Loidi, Nerea Lazpiur, ezezaguna, Garbiñe Ibabe eta Bigen Alberdi (zorianak Bixente!!).

Aurrean etzanda: Agurtzane Toledo, ezezaguna, Nerea Santos, Arantzazu Larrañaga eta Asier Aranguren.

Argazkia: Nerea Lazpiur

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"
BAR LA VNION

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



2000n berriz ere zuekin martxan

San Martin Agirre herri ikastetxeak antolatutako HITZALDIAK

Kultur Etxean 18:30etan

Gurasoen zeregina seme-alaben (0-6 urte) afektibitatean eta sexu-hezkuntzan
Urtarrilaren 13an, eguena.

Gurasoen zeregina seme-alaben (7-12 urte) afektibitatean eta sexu-hezkuntzan
Urtarrilaren 20an, eguena.

Amaia Vazquez Eguzkitza, psikologo klinikoa, sexu-hezitzailea.

Nola bideratu stressa eta antsietatea ikastetxean eta familian.
Urtarrilaren 27an, eguena.

Pepe Romo Martinez, psikologoa eta sofrologoa.

Gurasoen elkartea

IKASTAROAK

BARNETEGIAK

GURASOENTZAT

- Umeen jolasak eta kantak
- Estresa eta antsietatea bideratzeko estrategiak

IKASLEENTZAT

- Dantza
- Zeramika
- Mendiko autobabesa
- Uretako autobabesa

5 URTEKOENTZAT

- Sastarrainen, 2 egun, apirilaren 6an eta 7an.

LHko 1. eta 2. ZIKLOKOENTZAT

- Lurraskan, 5 egun, otsailaren 21etik 25era.

LHko 3. ZIKLOKOENTZAT

- Plentzian, 5 egun, martxoaren 20tik 25era.



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

B. Laskurain 25
Tf. 943 76 21 47
182 posta kutxa

20570 BERGARA



GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

a eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

